

## Kultura

Beats of Freedom bigarren diskoa aurkeztuko du, gaur, Plateruenean, Mocker's hirukote durangarrak. > 13



## Euskaraz bizitzeko erabakia

Hizkuntza ohituren aldaketa helburu duen Euskaraldia ekimenagaz bat egin dute hainbat instituzio eta eragilek. Eskualdean ere proiektu honegaz bat egingo dute. Euskararen aldeko aktibazioaren adibide da Alina Ahtamon. Gaztelaniaz ikastera bultzatu zuten Errumaniatik Euskal Herrira etorri zenean. Gero, bere kabuz euskararako bidea egin zuen. Meritu itzela du. > 2-3

Argazkia: Leñor Elorriaga

**“Eskola kirolean epaile gazteak daude, eta presio handia dute jokalarien gurasoen partetik”**



Juan Jose Gude | Eskubaloien epailea > 17

## Indarkeria matxistaren aurrean emakumeak babesteko eguna

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren kontrako Eguna izango da biharkoa, azaroaren 25a. Herririk herri indarkeria kasuengatik protesta egingo dute, eta kontzientziarako aldarria zabaldu ere bai. Durangon, esate baterako, II. Emakumeen Lasterketa egingo dute herriko kaleetan, Durango Kirol Taldeak antolatuta. Durangaldea morez jantziko da berdintasunaren alde. > 5

## JARDUNALDI GASTRONOMIKOA

abenduaren 2an, 15:00etan

dastatzeko menua

4 eskutara

Juan Carlos Reyes

1. Balfegó Hegalabur Lehiaketako irabazlearekin

Prezioa: 70 euro (BEZa barne)  
Deitu erreserba egiteko: 946 228 240



## Durangaldea > 5

Gazteen tabako kontsumo ohitura  
11 puntu jaitsi da 2008tik hona

## Durango > 8

Kontainer marroia 2018an ipini gura  
du Durangoko gobernu taldeak

## Zaldibar > 10

Alokairu sozialerako programa  
aurkeztu du Barrura ekimenak

## Izurtza > 11

Gaztardogi azokak 18 ekoizleren  
produktuak erakutsiko ditu

## Herririk herri

**> ERREPORTAJEA** M. Onaindia  
Etorkizuneko mediku euskalduna izango da. 24 urteko neska honek duen meritua ikaragarria da. Gaztelaniaz ikastera eta bizitzera bideratu zuten txikitan, eta egun batean euskararako jauzia egiteko erabakia hartu zuen, bere kabuz. 11 urtegez etorri zen Errumaniatik familiagaz, jatorriz eta sentimenduz errusiarra izan arren. Bere nortasun agiri errumaniarrak dioena ez du sentitzen, “seguruenik zuri gertatzen zaizun moduan”, diotso kazetariari.

Euskal Herrira etorri zinenean, gaztelaniaz ikastera bultzatu zintuzten. Egin duzun bidearen kontrakoa, hain zuzen. Hasiara ez zen erraza izan. Lehen urtea Lemoan egin genuen, eta eskolan D eredu soilik zegoen. Ez nuen euskara ezagutu ere egiten. Eskolan bertan esan ziguten igual hasteko hobeto izango zela B eredura pasatzea, eta, horregatik, Galda-kaora joan ginen. Baina han ere gauza bera: A eredu hobe zela niretzat. Basaurin zegoen, eta hara joan nintzen azkenean. Gero, Durangora etorri eta institutuan B eredu hautatu nuen, baina hainbat ikasgai euskaraz ziren. Beraz, berriro hori biziko banu, hasieratik D eredu aukeratu nukeela uste dut.

**Zer gertatu zen gauzak aldatzeko? Zergatik egin zenuen euskararako bidea?**  
DBHko lehen, bigarren eta hirugarren mailak B eredu egin nituen, baina laugarrena, ez. Egun batean etxera joan eta amari esan nion: “Ama, datorren urtean D eredu pasatuko naiz”. Kokoteraino nengoan, euskaraz gehiago jakin gura, baina ez nuelako lortzen. Hiru-lau urte dagoeneko hemen, eta euskaraz ezin nuen elkarrizketa bat ere egin. Oso txarto sentitzen nintzen. Beraz, nire lagun kolonbiar bat eta biok D eredu pasatu ginen laugarren mailan, eta oso ondo joan zitzaigun.

# “Euskara ikasten ahalegintzeak integrazioan laguntzen du”

15 urtegez, ‘B’ eredutik euskara hutsezora pasatu zen Alina Ahtamon, euskaraz bizi ahal izateko



**Alina Ahtamon**  
Errumania, 1993  
Medikua eta tabernaria

Argazkia: Lehor Elorriaga

Gaur egungo nire kuadrilla ordukoa da.

**Maila itzela duzu. Errefortzuak ere jaso zenituen, ezta?**  
Bai. Etorkinentzako euskara ikastaro batzuetan egon nintzen Berbaron, eta, aparte, uste dut udalak antolatuta, antzerki tailerretan ere bai. Karrikako neska bik ematen ziguten, eta, azkenean, obra bat egin nuen eurenkin, *Paperezko ohea*. Dena euskaraz zen, eta pilo bat lagundu zidan. 15 bat urte nituen orduan.

**Durangoko Pol-Pol tabernan egiten duzu lan. Euskara praktikatzeko aukera da?**  
Etxean errusiarrez egiten dugu, eta tabernak euskara prak-

“*Etxean errusiarrez egiten dugu, eta tabernak euskara praktikatzeko lagundu dit*”

tikatzen lagundu dit. Izan ere, gura barik jendeagaz berbetan hasten zara eta, azkenean, praktikatzeko duzu. Aparte, iaz Txilen egon nintzen, Erasmus beka gaz, eta han Berrizko eta Mallabiko neska bigaz bizi izan nintzen sei hilez; euskara piloa egin genuen. Mallabitarrak han ikasi zuen gaztelaniaz! (barrez).

**Tabernako bezeroak harritu egiten al dira zu euskaraz entzutean?**

Hori ia-ia egunero gertatzen zait. Bikote bat etorri, euren artean euskaraz, eta gaztelaniaz eskatzen didate edaria. “¿Nos pones dos cortados?”. Nik beti eskaria errepikatzeko ohitura dut, eta “ebaki bi?” esaten diet. “A, bai!”, euren erantzuna. Bestalde, alderantziz ere gertatzen da. Nahiz eta nire aurpegiara kanpotarra dela ikusi, batzuek zuzenean euskaraz egiten didate.

**Euskarak hobeto integratzeko balio izan dizu?**

Baietz uste dut. Euskaraz egiten saiatzeak laguntzen du, ze zuek

gehiago zabaltzen zarete. Erlazioa hobetzen da. Beti esaten dute oso zarratuak zaretela, baina ez nago oso ados horregaz. Ni hasieratik oso babestuta sentitu nintzen. Horregatik esaten dut ez zaretela hotzak. Ez nago munduko mugekin ados, mundua denona baita. Baina, beste errumaniarrei ere esaten diet, kontuan edukitzeko beste lur batera etorri garela, eta bertako kulturara moldatzen saiatu behar dugula. Ezin dut ahaztu non jaio nintzen, eta ezta ahaztu gura ere. Baina, jada, hemengo kulturaz berba gehiago egiten dut nire jatorrikoaz baino. Harro sentitzen naiz hemengo jendeaz. Oso bereziak zarete, eta oso pozik nago Euskal Herrian.

**anboto**

kunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2017ko azaroaren 24a  
16. urtea - 699. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale



**Zuzendaria:** Jone Guenetxea  
Arrinda. **Erredakzio burua:**  
Markel Onaindia Txabarri.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar  
Zubizarreta. **Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:** Nagore Txintxurreta  
Isasi eta Alazne Salcedo Artetxe.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri  
Gandiaga, Joseba Derteano  
Bilbao, Markel Onaindia Txabarri,  
Maialen Zuazubiskar Gallastegi  
eta Aritz Maldonado Zabala.  
**Maketazioa:** Eider Alberdi  
Bengoa. **Zuzentzailea:** Mikel  
Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru  
Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Arriaga antzokian egin zuten, atzo, Euskaraldiaren aurkezpena.

## Euskaltzaleak aktibatzeke, Euskaraldia abiatuko da Durangon abenduaren 1ean

Ekimenaren aurkezpena KARRIKA taldearen laguntzagaz egingo dute, 19:30ean, Andra Marian

Euskaraldia, euskaraz hitz egin eta ulertzen duten herritarren arteko harremanean hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen ekimena aurkeztu zuten atzo Bilbon. Euskaraz dakitenen eta ulertzen dutenen aktibazioa oinarri duen proiektuaren aurkezpenean Euskal Herriko lurralde guztietako instituzioetako ordezkariak eta gizarte eragileak elkarlanean bat egin zuten. Jone Guenetxea ANBOTOKo zuzendariak Tokikomeko ordezkari legez

agerraldian parte hartu zuen. 2018ko azaroaren 23a aukeratu dute mugarri moduan, urtebete barru, egun horretan bertan abiatuko baita euskararen lurralde osoan batera egingo den aktibazio ekimen handia. 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra hizkuntza ohituretan eragiteko helburuz. *11 egun euskaraz* lelopean egingo da lehenengo Euskaraldia.

Durangon ekimenagaz bat egiteko lehenengo hazia jarri dute. Gainerako herrietan ere

proiektuaren aldeko konpromisoa agertu dute. “Urte osoko lana egin beharko da egitasmoaren berri zabaltzeko, formakuntza jasotzeko, girotzeko, eragileekin biltzeko... Lan hori egiteko, 2018 hasieran herri batzorde bat sortzea da asmoa”, azaldu du Maite Berriozabal Barbaroko arduradunak. Taldea sortu aurretik, lehen pausoa datorren barikuan, abenduaren 1ean, egingo dute. Andra Mariko elizpean, 19:30ean, *11 egun euskaraz* zer izango den

azalduko dute KARRIKA antzerki taldekoen laguntzagaz. Ekimenean figura bi izango dira. Alde batetik, euskaraz berba egiteko gai diren *ahobiziak*, eta, bestetik, berba egiteko gai ez diren arren euskara ulertzen duten *belarriprest*-ak. Erronkagaz bat egin gura duten durangarrek *Ahobizi* edo *Belarriprest* izatea aukeratu dute, eta, hamaika egunez, figura horien txapa eramango dute soinean, herriko harremanetan denek jakin dezaten zer konpromiso hartu duten.

### Durangoko EHE kalera aterako da, “lege babes egokia” eskatzeko

Euskal Herrian Euskaraz elkarteak elkarretaratzea deitu du gaurko, 19:00etan, Andra Marian. Erkidegoko euskararen legeak 35 urte beteko ditu hilaren 24an, eta efemeridearen harira euren aldarria zabalduko dute kalean. “Kalera aterako gara euskararak behar dituen gutxiene-

ko neurriak exijitzeko. Euskararentzat lege babes egokia eskatzen dugu, euskaraz bizi ahal izateko eta Euskal Herri euskalduna eraiki ahal izateko”, esplikatu dute EHEkoek oharrean.

Besteak beste, administrazioa osorik euskalduntzea litzateke neurrietako bat.

### Euskararen alde II. Herri Lasterketa prestatu du Ebalixuk Elorrion

Ebalixu euskara taldeak II. Herri Lasterketa antolatu du Elorrion, *Emon urratsak euskeraz konpleju barik* lemapean egingo dena.

Lau kilometro edukiko ditu lasterketak; beraz, kirolariek aparte herritar ugari ere parte hartzeko modukoa da. Iaz, 170 bat lagunek parte

hartu zuten. 12:00etan hasiko da, Elorriko plazan.

#### Mozorrotzeko deia

Inskripzioa internet bidez egin ahal da, eta baita lasterketa aurretik ere, 11:00etan. Mozorrotuta joateko deia egin dute, eta amaieran sariak zozkatuko dituzte.

#### EGITARAUA

##### DURANGO

Abenduaren 1ean:

- 19:30ean, Andra Marian, Euskaraldia aurkezpena

##### ABADIÑO

Abenduaren 3an:

- 10:30ean, bizikleta martxa
- 12:00etan, postal lehiaketako sariak
- 16:00etan, zinema
- 17:30ean, tailerrak

##### ATXONDO

Abenduaren 1ean:

- Liburutegian Pello Añorga kontalaria

##### BERRIZ

Abenduaren 2an:

- 16:30ean eta 18:30ean ‘Ene kantak’ ikuskizuna
- Abenduaren 3an:
- 12:30ean bertso saioa

##### ELORRIO

Abenduaren 2an:

- 18:00etan, Gaztetxean, ‘Musika eta hizkuntza aktibazioa’ solasaldia. Ondoren, Paddy Rekaldereen errezitaldia.
- Abenduaren 3an:
- 12:00etan: Herri lasterketa. Ebalixu.

##### MALLABIA

Abenduaren 1ean:

- 16:15ean, berbaldia eskolan
- Abenduaren 3an:
- Sei film labor eskainiko dituzte panel elektronikoan

##### ZALDIBAR

Abenduaren 3an:

- 10:30ean, herri kirolak
- 12:00etan, argazki erakusketa
- 17:00etan, antzerkia Olazarren

##### ZORNOTZA

Abenduaren 3an, Nañonek prestatuta:

- 11:00etan, umeentzako jolasak eta kirolak Zelaietan parkean.
- 13:00etan, Erdizka Lauetan taldea



# TABIRA

Eguneko zentroa eta Egoitza gerentzia berria

Intxaurren, 27 DURANGO  
944 668 852 / 690 622 499



Hartu atsedena ditxo bat

[www.cuidamosdetusmayores.com](http://www.cuidamosdetusmayores.com)

- Zaintza eta zerbitzua adindunei
- Prebentzio Sanitario, Psikologiko eta Fisioterapeutiko handia
- Ile-apainketa eta podologia zerbitzua
- Aisialdia eta eguneko ibilaldiak
- Terapia okupazionala
- Aldi baterako egonaldiak
- Herriguneko instalazioak ongi komunikatuta
- Zaintzailearen atsedena
- Lan talde bikaina

**DURANGALDEA** M. Onaindia  
 “Gu ere haiekin bat, zigorpean gaude”, zioen Anje Duhalderen abesti ezagunak. Sentsazio hori dute Bego Retak, Amaia Etxenagusiak, Maite Arginzonizek eta Maria Angeles Onaindiak, Durangoko eta Elorrioko lau presoren senideek. Izan ere, karga emozionalaz aparte, as-tero ehunka kilometro egitera behartuta daude euren neba, semea, loba eta alaba ikusteko. Memorian gordeta dute eza-gututako kartzelen zerrenda luzea: Aranjuez, Paris, Alacant, Huelva, Fresnes, Picasent... Eurei babes ematen dien el-karteak, Etxeratek, kanpaina berri bat jarri du martxan, eta hori bultzatzaera datoz. Pre-soen asistentzia juridikoa eta medikua bere gain hartu ditu elkarrekin; bada, hori finantzatzeko, herritarren laguntza eskatu dute. “Jendea animatu gura dugu Etxerat Lagun egin dadin, gastu guztiei aurre egin ahal izateko”, esplikatu du Arginzonizek. Presoen medikuak, psikologoak edo bestelako espezialistak ordaintzeko behar-izana dute, eta abokatuak ere bai. Datozen hileetan Euskal Herrira ekartzeko eskaerak tramitatuko dituzte, eta gestio hori finantzatzeko beharra du Etxeratek, besteak beste.

#### Frantziako mahaia

Frantzian, presoen eskubideen aldeko eragileek eta gobernuak negoziazio mahai bat eratu dute, konponbidean pausoak emateko asmoz. ETak 2011n amaitu zuen borroka armatua, eta ordutik mugimendu gutxi egon da presoen arloan. “Gobernuak ez digu familiarrei kasurik egiten”, dio Etxenagusiak. Horregatik, Frantziako mahaia argi izpi bat ekarri dezake. “Gutxi izanda ere, zerbait mugitzen bada, esperantza txiki bat da, eta

## “Zerbait mugitzen bada, esperantza txiki bat da, eta hori asko da guretzat”

Etxeratek senideak babesteko eta presoen asistentzia kubritzeko kanpaina bat ipini du martxan



Ezkerretik hasita, Reta, Etxenagusia, Arginzoniz eta Onaindia.

hori guretzat asko da”, azaldu du Onaindiak. Alaba Aitziber Picasenten (Valentzia) dago uneotan, Etxenagusia-aren seme Asierregaz batera -650 bat kilometrorra-. Guraso izan berri dira, eta ume txikiak haize berri bat ekarri du familiara. 13 urte eta 5 hile daramatzate kartzelan, eta beste urte 2 eta erdira irten-gora dira hirurak.

#### Manifestazioa Elorrión

Arginzonizek eta sendiak 10 urte pasa daramatzate Aritz loba-aren destinetara begiratzen. Huelva izan da azkenaldian, eta Fresnes da orain. Berez, otsai-lean beteko du zigor osoa, baina Frantziara eraman dute, han epaitu gura dutelako. Salatu dutenez, lehen aldia da irtetear den preso bat estraditatzeko es-

kaera egiten dutena. “Otsailean kalean geneukan eta...”, dio penatuta Maitek, eta gogoratu du, espainiar legeak betez gero kalean egon beharko lukeela jadanik. “Legea beteko balute, gauza asko konponduko lirakeke. Bakoitza bere etxetik kartzela hurbilenean egongo litzateke, preso gaixoak kalean, erbestera beste egoera batean...”.

Domeka honetan manifestazioa egingo dute Elorrión, *Aritz Arginzoniz sustarretatik atara barik!* dinamikaren baitan, 13:00etan. Gobernuen azken erabakia “mendekua” dela uste dute. Senideek ez dute oraindik Aritz Frantzian bisitatzekeo bai-menik -900 kilometrorra dago-.

Arginzoniz: “Jendea animatu gura dugu Etxerat Lagun egin dadin, gastuei aurre egin ahal izateko”

Reta: “Orain geu ari gara kondena hori betetzen, ehunka kilometrorra joan behar izana”

Bego Retaren neba Iñakik hainbat kartzelaldi bizi izan ditu 80ko hamarkadatik hona. 2015ean atxilotu zuten azkene-koz, eta uneotan Fleuryn dago, Frantzian. Oraindik ez dute epaitu ere egin. “Orain geu ari gara kondena hori betetzen, ehunka kilometrorra joan behar izana. Baina gure babes eta maitasuna behar dituzte eta se-gituko dugu”, esan du arrebak.

Etxeratek adierazi du uneo-tan 310 preso daudela kartzelan, eta kopurua beheraka badoa ere, “beharrizanak ugaltzen” ari direla. Gainera, hainbatek gai-xotasun larriak dituzte, Gorka Fraile durangarrak eta Ibon Ipa-rragirre ondarrutarrak kasu.

## Abenduaren 9an Parisen manifestatzeko deia egin dute

Bakearen Artisauk urratsak eman gura dituzte presoen arloan



Plateruena kanpoan, ekitaldiaren ostean ateratako argazkia.

Presoen “eskubideen urraketak” amaitzeko eta konponbidean aurrepauso bat emateko helburuagaz, Bakearen Artisauk manifestazioa antolatu dute abenduaren 9rako, Parisen. ETaren armagabetzean paper garrantzitsua jokatu zuten boluntario horiek, eta orain, presoen arloan urratsak erraztea da euren intentzioa. Joan zen zapatuan, Parisen manifestatzeko deia egin zuten hainbat lagunek Durangon, Plateruenean.

Mixel Berhokoirigoin bake-gilearen berbak entzun ahal izan ziren ekitaldian, grabazio bidez. “Parisetik pasatzen da Euskal Herriko bakebidea. Parisera joan behar dugu, bo-rondatez eta fede onez beterik,

baina baita determinazioz ere”, adierazi zuen Berhokoirigoinak.

Iñaki Lasagabaster EHUKo zuzenbide katedradunak ere hitz egin zuen. “Nagusiki, al-darrikatzen gabiltzana pertso-nen oinarrizko eskubideekiko errespetua da”, esan zuen.

Horrez aparte, Miren Amu-riza bertsolariak abestu zuen zapatuan.

#### Kartzeletatik bira

Bestalde, Frantziako kar-tzeletatik bira bat hasi dute Etxeratek, Sarek eta Bagoaz plataformak, espetxeetako zu-zendariekin eta inguruetako eragileekin hartu-emanak lan-tzeko. Abenduaren 9aren au-rretik amaituko da bira hori.



Aitor Lopez Amankomunazgoko presidentea (erdian), Vicente Fernandez eta Amaia Sarrionandia teknikariek.

## Gaztetxoan tabako kontsumoa 11 puntu jaitsi da 2008tik hona

Drogen kontsumoa beheraka doala igartzen da, aurreko datuekin alderatuta

**DURANGALDEA** M. Onaindia Amankomunazgoko adikzioen sailak ikerketa bat garatu du eskualdean, 11 eta 20 urte bitarteko 2.244 gaztetxori inkestak eginda (ikasleen %44,8). Drogen kontsumoa beheraka doala nabaritzen da, 2008ko eta 2012ko azterketekin alderatuta. Nabarmenezkoa da tabakoa erretzen hasteko adina 6 hile atzeratu dela, eta kontsumoa 11 puntu jaitsi

dela. Alkoholaren ohiturazko kontsumoa %54,4tik %40,3ra bajatu da 8 urtetan; tabakoarena %26tik %15,3ra; haxixarena %17,9tik %7,8ra; marihuanarena %19,6tik %11,8ra; speedarena %2,4tik %0,7ra.

Gaur egun alkohola da probatzen duten lehen droga; duela urte batzuk tabakoa zen. Alkohola edaten hasteko batezbesteko adina 13 urte da, eta

tabakoarena 14 urte. Hori bai, neskek mutilek baino hile batzuk lehenago ekiten diote.

Adikzioen sailatik teknologia berrien eraginak eta apustu-jokoenak ere aztertu dituzte. Apustuen kasuan askoz gehiago dira mutilak, eta kalean egiten dute apustu batez ere. Kezka erakutsi dute apustuengatik, nerabeek arriskurik ikusten ez dutelako.

## Emakumeen alde kalea hartuko dute bihar

Durangon II. Emakumeen Lasterketa egingo dute bihar, 17:00etan, Ezkurdin hasita

**DURANGALDEA** M.O.

Azaroaren 25a da biharko eguna, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkakoa. Horregatik, emakume eta gizonek kaleak hartuko dituzte bihar, indarkeria matxista salatzen.

Durangon II. Emakumeen Lasterketa egingo dute bihar, 17:00etan, Ezkurdin hasita. 19:00etan, Plataforma Feministak deitutako manifestazioaren hasiko da, Santa Anatik.

Zornotzan, 12:30ean, mugimendu feministaren elkarretaratzea egingo da, eta 13:00etan udalak deiturikoa. Elorrioren 13:00etan batuko dira plazan; Zaldibarren 12:30ean udalategian; Berrizen 19:00etan udalategian eta Abadiñon 12:00etan Trañabarrenen. Iurretan, gaur 18:30ean irakurriko dute, eta bihar kontzentrazioa egingo dute Gazte Asanbladak deituta, 21:15ean.



Laz emakume askok parte hartu zuten Durangoko lasterketan.

# 2017ko SAN ANDRES JAIAK ZALDIBAR

### Azaroak 24, barikua

**18:00-20:00** Ilargik antolatzen duen XXVII. Argazki Lehiaketako erakusketa, Euskal Herria etorbideko 24. zenbakiko lokalean.

### Azaroak 25, zapatua

**12:00-14:00** eta **18:00-20:00** Ilargik antolatzen duen XXVII. Argazki Lehiaketako erakusketa, Euskal Herria etorbideko 24. zenbakiko lokalean.

### Azaroak 26, domeka

**08:00** Arku txapelketa, XX. San Andres saria, kiroldegian.

**12:00-14:00** Ilargik antolatzen duen XXVII. Argazki Lehiaketako erakusketa, Euskal Herria etorbideko 24. zenbakiko lokalean.

**17:30**  
Euskal Herriko Trikitilari Gazteen XXVI. Txapelketa, Olazar pilotalekuan

### Azaroak 29, eguaztena

**19:00** Olazarmendi kirol klubak jaien hasiera iragartzeko txaplogua jaurtiko du udaletxeko balkoitik. Euren ohorez aureskua dantzatuko da.

### Azaroak 30, eguena

**11:00** Kalejira trikitilariekin.  
**14:30** Nagusien bazkaria.  
**18:30** Pilota partidak Olazar pilotalekuan.

### Abenduak 1, barikua

**18:00-20:00** Ilargi argazki taldearen erakusketa kolektiboa, Euskal Herria etorbideko 24. zenbakiko lokalean.

**18:00** Kontzertua San Andres elizan, 4kote cuarteto vocal eta OIzpe Sax 5tet taldeekin.

**19:00** Helmuga emakume taldearekin pintxoak eta DJ Josemari, Olazarren.

### Abenduak 2, zapatua

**12:00-14:00** eta **18:00-20:00** Ilargi argazki taldearen erakusketa kolektiboa, Euskal Herria etorbideko 24. zenbakiko lokalean.

**18:30** Eskolako pilotalekuan Go!azen jaialdia (euria bada, Olazar pilotalekuan)

**19:00-22:00** Kantu poteoa Joxe Mendizabalekin, udaletxeko plazan hasita.

### Abenduak 3, domeka

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

**10:30** Herri kirolen parke tematikoa Olazar pilotalekuan.

**12:00-14:00** Ilargi argazki taldearen erakusketa kolektiboa, Euskal Herria etorbideko 24. zenbakiko lokalean.

**17:00** Patata tropikala antzerki taldearen "Kalean otso etxean uso" antzezlanaren Olazar pilotalekuan.

### Abenduak 17, domeka

**11:30** Gimnasia erritmikako erakustaldia Olazar pilotalekuan.



Euskal Herriko  
**Trikitilari Gazteen**  
XXVI. Txapelketa 2017

Azaroak 26, domeka



**Zaldibar**  
Elizateko Udala

# Abadiñoako Eroski hipermerkatuak produktu ekologikoen aldeko apustua egin du

Besteak beste, produktu ekologikoen, glutenik bakoan edo dietetikoaren eskaintza handitu dute

**ABADIÑO** J.Derteano

Abadiñoako Eroski hipermerkatuan salguneko espazioa berantolatatu dute. Hile eta erdiko lanaren emaitza asteon aurkeztu dute, hipermerkatu barruan egindako ekitaldi batez. Kontsumitzaileentzat "atseginagoa eta erosoagoa" den espazio banaketa bilatu dutela azpimarratu du Iñaki Etxebarría Eroskiko salmenta arduradunak.

Hipermerkatuaren erdian produktu ekologikoen, dietetikoaren eta glutenik bakoan gunea atondu dute. Hantxe batu dituzte intolerantziak dituztenei bideratutako produktuak ere. Ildo horretako inoizko eskaintzarik zabalena aurkitu daiteke bertan. "Lehen hiru-lau modulu hartzen bazituen ere, orain 45 bat hartzen ditu", zehaztu du Iker Pereira elikagaien arloko buruak. "Ekoizpen ekologikoko 1.000 produktu baino gehiago daude", gaineratu du. Kontsumitzaileen iritzia eta ekarpenak jaso ostean, produktu mota horien gaineko eskaintza hazi egin



Abadiño Eroski hipermerkatuko langile eta arduradunak produktu ekologikoen gune handituaren aurrean.

delako hartu dute esparru hori handitzeko erabakia. Eremu horretan, solteko salmenta gunea ere jarri dute; hau da, kontsumitzaileak gura duen kantitatea

hartu dezake askotariko produktuetan. Lurrin denda espezializatuagoa eta parafarmazia handiagoa dira 16 urte egin dituen hipermerkatuko beste

nobedade batzuk. Etxetresnen gunea sarrerara gerturatu dute, bezeroentzat eskurago egon dadin. Tronperri Dantza Taldeak alaitu zuen aurkezpen ekitaldia.

## Baske Street Boys, Elkartasun Asteburuko kontzertuan

**ABADIÑO** Markel Onaindia Hurrengo asteburuan, abenduaren 1ean eta 2an, Elkartasun Asteburua egingo dute Traña-Matienan, preso eta iheslariaren etxeratzearen alde. Deneriko ekintzak prestatu dituzte eta, horien artean, herriko Baske Street Boys taldearen kontzertua egongo da. Ibai Zabala pilotaria abeslari duen taldeak kontzertu gutxi ematen ditu, soilik hitzordu berezietan, eta zapatukoa izango da eurek zuzenean ikusteko aukeretako bat. 23:00etan hasiko da kontzertua, Zaldurreka elkarrean, eta Eskupitajo taldeak joko du eurekin. Ostean, Dj Alus arituko da jai-giroa sortzen.

Barikuan elkarretaratzea egingo dute, 20:00etan. Gero, 22:00etan, Ainhoa Gangoitiak Amerikan bititako esperientziak kontatuko ditu argazki bidez. Zapatuan egun osoko jai izango da; 09:30ean mendi irteera egongo da, eta eguerdian, bazkaria. Txartelak salgai daude Mesoi, Abarketeruena eta Tipi-Tapak tabernetan.

**ABADIÑO** A.M. / M.O.

Joseba Legarza Urkiolako santutegiko abadea hil da, 84 urte gaz; santutegian geratzen zen bi elizgizonetako bat zen lekeitiarra. Antonio Madinabeitiagaz batera omendu zuten Legarza, joan den domekan, biak makina bat urtez Urkiolako santutegiko abade izan eta gero ibilbide horri amaiera ematea erabaki zutelako. Legarzak, esaterako,

47 urte eman zituen Urkiolako santutegian Joseba Legarzak; 84 urte zituela hil da abadea

47 urte eman ditu hango ardura betetzen. Ekuadorren misiolari egon zan abadea, 1962tik 1971ra bitartean. Madinabeitia ere egona zen misiolari. Urkiolako lagunen zein eliztarren esker ona jaso zuten joan zen asteburuan eginiko ekitaldietan.

### Omenaldia, domekan

Domekan elizkizun berezia egin zuten santutegian, euren azken emanaldian, eta jende ugari hunkituta ikusi ahal izan zen bertan. Urteetan zehar zeregin bati eskainitako dedikazioa maila pertsonalera ailegatzen da sarri, eta horixe gertatu da Legarza eta Madinabeitiagaz. Mezaren ostean, bazkarian batu ziren hainbat lagun.

## Joseba Legarza hil da, Urkiolako santutegiko azken abadeetako

Urkiolako santutegia uztekoak ziren Legarza eta Madinabeitia abadeak



Legarza, erdian, domekako elizkizunean.

**Hiper Eroski  
Abadiñoan erosteko  
modu berri bat**



**EROSKI club  
kreditu-txartel  
berria**  
**EROSKI Abadiño  
hipermerkatu berria**  
Azoka kutsuko hipermerkatua  
**EROSKI**  
Abadiño zurekin

# Ikasketa bidaiarako dirua lortzeko moda desfilea egingo dute Olaburu frontoian

Negu honetarako moda erakutsiko dute Juan Orobiogoitia ikastetxeko ikasleek

**IURRETA** A. Basauri

Negu honetarako moda ikusteko aukera dute iurretarek abenduaren 1ean. Ez hori bakarrik. Gabon zahar gauerako edo ezkontzetarako erakustaldiak ere eskainiko dituzte Juan Orobiogoitia ikastetxeko 13 eta 16 urte arteko 56 ikaslek. Ikasketa bidaiarako dirua lortzeko desfilea Olaburu frontoian egingo dute. 20:00etan hasiko da desfilea, baina ateak ordu erdi lehenago egongo dira zabalik. Nagusiek hiru euro ordainduko dute, eta adin txikikoek euro bat eta erdi.

Sei urte arteko umeak doan sartu daitezke.

Lehenengoz egingo dute moda desfilea Juan Orobiogoitia ikastetxeko ikasleek, eta harrera ona espero dute. Inoiz modelo lanetan ibili gabeak direla aitortu dute Iker Martinek, Leire Etzanok, Paula Iriondok, Imanol Blancok eta Corinne Tinocok. Guztiak prestaketa lanetan murgilduta daude azken bi hilabeteetan, Peru Zabala, Izaskun Ortiz de Zarate eta Saioa Ochoagaz batera. Urduri dauden galdetuta, desberdinak dira erantzunak. Lotsarik ez zaie nabari batzuei, nabar-



Duela hilabete bi hasi ziren antolatzen moda desfilea Juan Orobiogoitia ikastetxeko ikasleek.

mena da urduritasuna besteen artean. Diotenez, antzera batean animatu dira pasarelara igotzen, mutil zein neska, eta jende asko joatea espero dute denek. Desfilea antolatzeko, Dendak

Bai elkartearen laguntza izan dute, eta Durangoko sei dendek utziko dizkiete arropak.

Bederatzi moda erakustaldi egingo dituzte, baina gimnastika eritmitikoa eta musika kla-

sikoa ere tartekatuko dituzte; abeslari bat ere egongo da. Taberna egongo da, eta pintxoak, salda, txokolata eta bizkotxoak ere salduko dituzte. Erositako sarrerekin zozketa egingo dute.

# Herrian eragingo duten lanek kezka sortu dute

EH Bilduk batzar irekiera deitu du hilaren 29rako

**IURRETA** A. Basauri

N-634 errepidea berrantolatuko du Bizkaiko Foru Aldundiak, Iurretatik igarotzen den zatian. Herrigunea eta plazaren arteko lotura handitu gura dute obra horiekin eta, besteak beste, birbilgune berri bi eta semaforodun zebra bideak aurreikusi dituzte. Lan hauen "garrantzia" ikusita, eta sortu dituzten "kezka eta interesei erantzuteko", batzar irekia antolatu du Iurretako EH Bilduk azaroaren

28rako. Ibarretxe kultur etxean izango da, 19:00etan.

Batzar horretan, Bixente Kapanaga kalean izango diren aldateten berri ere eman gura du EH Bilduk. Kale hori norabide bakarrekoa izatea aurreikusi dute, eta horrek izango duen eragina azalduko dute batzarrean. EH Bilduko ordezkariak nabarmendu dute herritarren ekarpen eta kezka batu gura dituztela datorren martitzenerako deitutako batzarrean.

## Gurasoekin batzarra egingo du Trumoitte

**GARAI** M.O.

Trumoitte kultur elkarteak batzarra antolatu du gaurko, eta herriko umeen gurasoak gonbidatu ditu bertara. 20:00etan izango da kultur etxean. Azaldu dutenez, pare bat helburu izango ditu batzarra. Alde batetik, Olentzero bueltako ekitaldiak prestatzea. Eta, bestetik, 2018rako ekintzen egutegia pentsatzen hasteko hasiera lez, herriko umeen premiak ezagutzeko.

## Gaztetxeak webgune berria estreinatu du

**OTXANDIO** J.D.

Otxandioko Gaztetxeko kideek webgune berria dute euren gaineko informazioa emateko: [otxandiokogaztetxe.wixsite.com/otxandiokoga](http://otxandiokogaztetxe.wixsite.com/otxandiokoga). Oraindik ez dela behin betiko bertsoa azaldu dute. Antolatutako ekitaldien berri ematen dute. Esaterako, zapatu honetarako Komando Klitorix eta Ziakhus taldeen kontzertuak antolatu dituzte. Mikroipuin lehiaketa bat ere abiatu dute.

**Publierreportajea**

## Ekin Kooperatibak sare komertziala bildu du Produktu eta Merkatu estrategia lantzeko



Pasa den irailaren 27, 28 eta 29an Ekin kooperatibak sare komertziala bildu du, datorren urteko merkatu estrategia lantzeko. Sare Komertzialaren egitura herrialdeka antolatzeaz gain (4 talde ezberdinez: Europa Mendebaldea, Ekialdea, Amerika eta Asia), orain arte nagusi izan den Automobilgintza esparruan balio erantsi proposamena sendotzen jarraituko du; Energia eta Aeronautika sektoreetan, azken urteetan egindako apustua munduan indartzea erabaki du Zornotzako Kooperatibak.

Brotzaketa prozesuan, bezeroek izan ditzaketen beharrei, erantzun orokor baten bidez aurre egitea erabaki da; lanabes, makina eta mantenu zerbitzuen eskaintzaren eskutik.

Merkatuak erakusten duen dinamismoa salmenten

%10eko hazkundean aurreikusten da, European, Amerikan zein Asian. Herririk herri, Asian, Indian aurreikusten da salmenta gehien, Automobilgintza merkatuko liderra bilakatzeko "1,2,3" izeneko proiektua martxan jarritz. Datozen 3 urteetan, gaur egungo salmentak bikoizteko esperantzaz. Amerikan, Mexikok AEBetako Trump Presidentearen politika protekzionistak saihestu dituela ematen du, merkatuak hazten jarraitzen duela erakutsiz. Bertan %15eko hazkundera aurreikusten da, bezero berrien eskutik. Azkenik, European, Automobilgintza sektoreko

bezero tradizionalen hazkundera, Aeronautika sektorean aurreikusten dira igoerarik nabarmenenak.

### 2018ko proiektuak

Merkatuak eskatzen duenari aurre egiteko, Zornotza eta Lemoako lantegietan jadanik zehaztu dira zein izango diren 2018ko proiektu nagusiak. Eraldaketa industrial proiektuari dagokionez, plangintza eta prozesuen sendotze lanak izango dira lehentasunak. Lehiakortasun Zaintza sendotzeko, barne datu base berri bat garatuko da eta Hornidura kate prozesuari dagokionez, barne efizientzia handitzeko, Back-Office izenagaz martxan jarriko den proiektuak, gaur egun balio erantsirik eman ez edota sendotu daitezkeen pausoak landuko ditu. Behar hauei guztiei aurre egiteko, 2017an antzera, 10 lanpostu berri sortzea espero da.

Beraz, aurreikuspenak gehiegi okertzen ez badira, Ekin kooperatibak 2018. urtea oparoa izango den esperantzaz dihardu lanean.

**ekin**

ekin S. Coop.  
Arriagane Industrialdea  
(Boroa auzoa)  
48340 AMOREBIETA  
[www.ekin.es](http://www.ekin.es)



Durango da eskualdeko herri bakarra oraindik hondakin organikoak sailkatzen ez dituen.

## Kontainer marroia 2018an ipini gura du kalean gobernu taldeak

EH Bilduk dio egungo garbiketa sistemak “lehen eta bigarren mailako herritarrak” sortu dituela, auzo batzuetan egun gutxiagotan garbitzen delako

**DURANGO** Markel Onaindia Durangoko gobernu taldeak (EAJ eta PSE-EE) 2018rako aurrekontu proposamena aurkeztu zuen astelehenean. Hainbat ideia jaso dituzte: gazteen alokairurako bost etxe gehiago egokitzea; nagusientzako etxerako janari zerbitzua; umeen aisialdiko espazioak aztertzea; puntu beltzak hobetzea emakumeak babesteko; kontainer marroia ezartzea... Gobernu taldeak zabor bilketarako eta kale garbiketarako kontratu berri bat proposatu du, eta horren baitan legoke hondakin organikoak batzeko kontainerak ipintzea. Durangaldean falta den herri bakarra da.

Aipatutako kontratu hori zortzi urtez egon zen indarrean, eta azken bi urte eta erdian luzatuta dago. Zerbitzua hobetu gura dutela esan zuten Aitziber Irigoras alkateak eta Pilar Rios alkateordeak, eta, horregatik, udaleko kontratuen diru kopuruak gora egingo du aurtan, %8. Guztira, 32,7 milioi euroko

udal aurrekontua edukitzea kalkulatu dute datorren urterako, iaz baino %5 handiagoa. Aldundiko udalkutxaren ekarpena igotzeak ahalbidetuko du hori, besteak beste.

**Auzo batzuetan, gutxiago?** Zabor bilketa herritar askoren kexa iturri da Durangon. Kontainerak egoera txarrean daudela, auzo batzuk ez direla

Zerbitzua hobetu gura dutela esan dute Aitziber Irigoras alkateak eta Pilar Rios alkateordeak

EH Bilduk dio aurtan 174 bider matxuratu direla zaborra batzeko eta kaleak garbitzeko tresnak

behar beste garbitzen... herritarrak sarritan kexatu dira, kalean eta sare sozialetan. EH Bilduk “ez du onartzen” lizitazio berria aurrekontura baldintzatzea, ikusita 2017an aurrekonturik ez dela onartu.

Gainera, zabor bilketaren kontratua orain berritzeko beharra azaltzeko hainbat datu eman ditu oposizioko alderdiak. Garbiketa sistemak “lehen eta bigarren mailako herritarrak” sortu dituela dio. Udal azterketa bateko datuak aintzat hartuta, auzoen arabera garbiketa desberdina dela salatu du. Durango hamabi eremutan banatzen da garbiketa egiteko eta, diotenez, zazpitan egunero garbitzen den bitartean, besteetan astean birritan soilik. San Fausto auzoaren kasuan, astean behin ere izan ohi da.

Bestalde, EH Bilduk dio aurtan 174 bider matxuratu direla zaborra batzeko eta kaleak garbitzeko tresnak. Lurpeko zaborrontzien kasuan, udalak 60 bonponketa egin ditu.

## Durangoko aire txarra, Jaurlearitzaren datuetan ere bai

**DURANGO** M.O./M.Z World Air Quality Index (WAQI) proiektu sozialaren iturriak erabilita, Durangoko airearen kalitatea barikuan Espainiar estatuko txarrena izan zela adierazten zuen datua zabaldu zuen EHBilduk, PM2,5 partikulei erreparatuta.

Udalak eta Jaurlearitzak, berriz, airearen kalitatea ona dela nabarmendu izan dute azkenaldian. Baina Jaurlearitzak publiko eginiko datuek ere barikuan hainbat unetan Durangon arnasten zen airea txarra zela erakusten dute.

PM2,5 partikulak ibilgai-luen eta enpresen isuri kutsakorrek sortzen dituzte; eta pertsonen arnasbideetan sartzea posible izaten da.

## 70 saltokik baino gehiagok ‘Black Friday’ ospatuko dute gaur

**DURANGO** M.Z. Hirugarren urtez Dendak Bai Merkataritza Elkarteak antolatuta, ‘Black Friday’ eguna ospatuko dute gaur Durangon. Elkarteak jakitera eman duenez, 70 dendak baino gehiagok parte hartuko duten ekimenean bezeroek eskaintza bereziak aurkituko dituzte. Elkarte-kideen hitzetan, bezeroek aurkitu gura dutena herrian bertan aurkitzea da beraien helburua.

Barikuko eskaintza berezietan, ‘hazkatu eta irabazi’ txartelak banatuko dituzte Durangoko dendek azaroaren 30era bitartean. Dendak Baik jakitera eman duenez, txartel horiek hainbat sari eta deskontu izango dituzte.

## Andra Mari kalea berrantolatzeke lanak hasi dituzte

**MAÑARIA** J.Derteano Andra Mari kalea berrantolatzeke lanak hasi dituzte eta aste gutxiren barruan amaituta egotea itxaroten du udalak. Bidea asfaltatuko dute, espaloien irisgarritasuna bermatzeko neurriak hartuko dituzte, ibil-

gailuen eta oinezkoen arteko bizikidetzaren bermatzeko aldaketak egingo dituzte eta zaborrontziak birkokatuko dituzte. Lan horiekin batera, Aldagoienan Pagabe baserrirako bidea asfaltatuko dute, Kapaneta inguruko bidea egonkortzeko lanak egingo dituzte eta Urkuleta bideko argi puntuak konponduko dituzte. Lanek 104.295 euroko aurrekontua dute. Aldundiak 24.685 euro gaz lagundu du.

## Bertso afarian azken finalistak erabakiko dituzte

**MALLABIA** J.D. Mallabiko Bertsolari Gazteen III. Txapelketako azken finalista biak gaur gauean erabakiko dituzte, Trabaku Goikoa jate-txean jokatu den bigarren finalerdian. Beñat Iguaran, Nerea Ibarzabal, Txaber Altube eta

Maialen Akizu arituko dira. Jon Gurrutxaga eta Unai Mendizabal, lehenengo finalerdiko irabazleak, dagoeneko sailkatuta daude. Finala abenduaren 6an jokatu dute, Herriko tabernako soziedadean. Sarrerak Bastidan lortu daitezke, 20 eurotan.

Txapelketa berezia da, ez delako ohiko epaimahairik egoten. Bertso afarietara batzen diren herritarrek osatzen dute epaimahaia.

**MACOBER**  
MATERIAL DE CONSTRUCCION  
Eltua Industr., 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890  
Tronperri kalea, 1 DURANGO  
Tel.: 946 811 737  
Eraikuntzako materiala  
Zeramika eta gres

**hitz** artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com  
#gomendioak

HELDUENTZAT  
NORA GOAZ  
EUSKALDUN-  
TASUN HONEKIN?  
Jose Manuel  
Odriozola  
2017

ELMER  
ELURRETAN  
UME ETA  
GAZTEENTZAT  
ELMER  
ELURRETAN  
David  
McKee  
2017

XABIER  
MONTOLA  
MUSIKA  
GORRAIZEA  
Xabier Montola  
2017



# on egin



Hondakin organikoak ongarri bihurtuz,  
**on egin** lurrari, inguruari, osasunari...

---

Eman izena, edukiontzi marroia erabiltzeko:  
94 623 25 22 · [al21.mdurango@bizkaia.org](mailto:al21.mdurango@bizkaia.org)

---

# Alokairu Sozialerako Programa aurkeztu du Barrurak, gazteen emantzipazioa laguntzeko

Hogeitabat gazteren proposamenak batu dituzte, udalari programa batean biltzeko proposatzeko

**ZALDIBAR** A. Maldonado

Herritarrentzat alokairu duin bat lortzeko helburuagaz aurkeztu zuen Barrura ekimenak, joan den uztailan, Alokairu Sozialaren Plana. Ekimen horrek bi zutabe zituen; bata herritarra, eta bestea, erakundeei begirakoa. Hain zuzen ere, udalari egindako proposamen sorta biltzen du berriki aurkeztutako Alokairu Sozialerako Programak. “Gure proposamenagaz, udalak gazteen emantzipazioa sustatzeko eta errazteko programa osatu dezake”, dio Pello Zabarte Barrurako kideak.

Ekimenaren helburua gazteen emantzipazioaren arazoari erantzun erreal bat ematea da, egingarriak diren proposamenak eginez horretarako. Eragileak Zaldibarren 200 etxe huts daudela azpimarratu du. Programa osatzeko, profil ezberdineko dozena bat gazte ingururen laguntza eduki dute Barrurako kideak. “Hiru-lauko taldetan batu gara, eta batzartean irten diren kezkek bildu ditugu. Gure ustez, gabeziei erantzuteko proposamenik onenak bildu ditugu”, azaldu du Zabartek.

Proposamenek 18-32 urte bitarteko gazteei eragiten diete. Etxeko jabeek, gazteek eta Zaldibarko Udalak berak bete



18 eta 32 urte bitarteko emakumeen eta gizonen proposamenak biltzen ditu Alokairu Sozialerako Programak.

beharreko hainbat baldintza agertzen dira; adibidez, etxebizitzaren baldintzak teknikari batek ziurtatuko dituela.

## Sinadura bilketa

Barrura ekimenaren asmoa kaleran presente egotea ere ba-

da. Horrela, joan den asteko Neguko Azoka sinadura bilketa abiatzeko baliatu zuten gazteek. Hilabete eta erdian ahalik eta gazterik gehien babesa lortzea gura dute Barrurako kideek; 18-32 urte bitartekoen sinadurak biltzen ari dira. “Ez

dugu inor kanpoan utzi gura, adin tarte hori erabiltzea erabaki dugu, gazteei protagonismoa emateko, arazo sozial honen konponbidearen erdigunean jartzeko”, esan dute. Programari buruzko informazioa ere banatu zuten.



Udaleko ordezkari eta merkatariak hartu zuten parte ekimenaren aurkezpenean.

## Salerosketak herrian egiteko kanpaina martxan, hirugarrenez

700 bonu salduko dituzte *Zaldibarren bizi*, *Zaldibarren erosi* kanpainaren baitan

**ZALDIBAR** A. M.

Zaldibartarrek erosketak herrian bertan egitea bultzatzeko, *Zaldibarren bizi*, *Zaldibarren*

*erosi* kanpaina jarriko dute martxan, hirugarren urtez. Hamar euroko bonuek hogeitabateko euroko balioa izango dute eki-

menean parte hartuko duten dendetan. Hemezortzi saltokiren babesa du kanpaina honek. Abenduan hasita, urtarrilaren

## Herriko aniztasun kulturala lantzen dabilza Elorrión

**ELORRIO** M. Zuazubiskar  
‘Mundutik Elorriora, Elorriotik mundura’ dokumentala sortzen dabil Elorrioko Udala, herriko aniztasun kulturala lantzeko asmoz. Prentsa ohar bidez jakitera eman dutenez, dokumentalaren aurkezpena abenduaren 15ean egingo dute, Arriolan. Horrez gain, testigantzekin mosaiko bat sortuko dutela eta elorriarrak bilduko dituen jai bat antolatzen dabilzala adierazi dute.

“Elkarren premiak eta betebeharrak ezagututa, gure herria eraikitzen jarraitzea errazagoa izango da”, adierazi du Txus Arrieta gizarte arloko arduradunak.

## Elorrioko Udalak enplegu plana garatu gura du

**ELORRIO** M. Zuazubiskar  
Elorrión dagoen lana sektoreka aztertu, eta dagoen langabezia modu erabilgarri batean sistematizatzeko enplegu plana eratuko dute. Aste honetan Elorrioko Udalak prentsa ohar bidez jakitera eman duenez, Elorrión lan aukera eta baldintzak hobetzeko dauden potentzialitate eta ahulguneak identifikatuko dituzte.

“Gobernu talde honek apustu irmoa egiten du Elorrioko ongizatearen alde eta baita iraunkorra eta kalitatezkoa den lan sorreraren alde ere”, adierazi du Txus Arrieta gizarte arloko arduradunak.

## Kalte-ordaina jasoko du udaleko langile ohi batek

**ZORNOTZA** J.D.

Azkenaldian, Europako epaiek mugak ezarri dituzte herri-administrazioetako behin-behineko kontratazioaren esparruan. Ildo horretatik, lehen epaia eman dute, eta Zornotzako Udalari eragiten dio. ELA-*k* aurrera eramandako prozedura bati esker, epaitegiak kalte-ordaina kobratzeko eskubidea aitortu dio udalean hainbat urtez jardun zuen funtzionario bati: lan urte bakoitzeko 20 laneguneko da.

7ra arte iraungo du kanpainak, eta 700 bonu egongo dira salgai. Aurten, zaldibartar bakoitzak bonu bat erosteko aukera izango du. Neurri honez, herritar gehiagok erosi ahal izatea ahalbideratu gura dute.

Hirugarren urtea du kanpaina honek, eta dendarien berbetan, “oso ongi etorria, eta eskertzekoa da”. Ekimenak aurreko bi urteetan izandako erantzun bera edukitzea espero dute dendariak.

## “Herri bizi baten alde”

Salerosketak Zaldibarren egitearen aldeko kanpaina hau “herri bizi baten aldeko” dinamikaren baitan kokatzen du Eneritz Azpitartek zinegotziak. Udalak 7.500 euro bideratuko ditu kanpaina hau sustatzeko.

Iazko kanpaina baino 200 bonu gehiago egongo dira salgai aurtengo kanpaina. Iaz, merkaturatu ziren ia bonu guztiak saldu ziren. 500 bonuetatik 468, hain zuzen ere.

# Gaztardogi azokak 18 ekoizleren produktuak erakutsiko ditu

Abenduaren 6an zazpigarren aldia egingo du lehenengo sektoreko azokak

**IZURTZA** Joseba Derteano Abenduaren 6an, San Nikolas egunean, Gaztardogi azokaren zazpigarren aldia antolatuko dute Izurtzako pilotalekuan. Guztira, 18 postu jarriko dituzte, 11:00etatik 15:00etara.

Postu askotan gazta, ardoa eta ogia izango dira nagusi, baina beste produktu batzuei ere egingo diete tokia: eztiari, loreei, ortuari, sagardoari eta txakolinari, besteak beste. Aurtengo nobedadeetako bat Orozkotik etorriko den txorizoen postua da. "Lehenengo sektorea

sustatzeko eta ekoizleei euren produktuak erakusteko helburua du azokak", nabarmendu du Lorea Muñoz alkateak.

Eguerdiko mezaren ostean, Izurtzako Mendigain dantza taldeak saioa eskainiko du plazan.

Eguerdian labeldun oilasko pintxoak dastatzeko aukera eskainiko dute

Ostean, labeldun oilaskoagaz egindako pintxoak dastatzeko aukera eskainiko dute euro bitan. Izurtzan erroldatutakoek dohainik jan dezakete udalean txartelak erretiratu gero. Azokan gastatzeko euro biko bonu txartelak ere eskuragarri jarri dituzte izurtzarrentzat.

Gaztardogi azokak irauten duen bitartean, Izurtzako jaietako argazki lehiaketara aurkeztu zituzten askoratiko argazkiekin osatutako erakusketa ere ikusgai egingo da jubilatuen lokalean.



Pilotalekua bete egiten da Gaztardogi azokan, askotariko produktuen postuekin.

## Atxondoko azoka 39 postuk osatuko dute

**ATXONDO** M.Z.

Abenduaren 3an Atxondoko Nekazaritza eta Artisautza Azokaren 21. aldia antolatuko dute. 10:00etatik 14:00ak ingurura arte 39 postu—25 artisautzakoak eta 14 nekazarienak—ipiniko dituzte Atxondoko plazan eta frontoian.

Bestalde, jan-edanerako aukera ere egingo da domeka goizetik eguerdira. Atxondoko talogileek taloak egingo dituzte, eta oilaskoa dastatzeko aukera ere egingo da.

## Herria hobetzeko, tertulia antolatu dute Berrizen

**BERRIZ** M.Z.

Berrizko Udalak herrian zer hobetu beharko litzatekeen jakin gura du. Horretarako, azaroaren 28rako kafe tertulia antolatu dute. Antolatzaileek adierazi dutenez, solasaldia 55 urtetik gorako berriztarrentzat izango da.

Datorren martitzenean 10:00etatik 12:30era bitartean egingo duten tertulia Berrizko Nagusien Etxean izango da. Bertaratu gura duenak aurrez izena eman beharko duela jakitera eman dute.

**SEI HANKAKO MAHAIA**

**GOIZTIDI DIAZ BASTERRA**  
EAJ



**Otsoak inpernura!**

Otsoak basoan bizi dira eta lau hankatan ibili. Ez dakit eboluzioaren zein momentutan gertatu zen aldaketa, baina aro honetara basoan bizi ez diren bi hankako otsoak heldu dira. Arrak dira eta lortzen dute ugaltzea eta beraien espeziea bizirik mantentzea.

Gure artean nahasturik bizi dira eta guztiz engainatzen gaituzte gure bizitzan eta etxeetan sartuz. Eta, orduan, beraien kareta kendu eta ondoan duten emakumea jipoitu egiten dute. Oraindik ere 2017. urtean plaga bat dira, kaletik dabilta non-nahi eta ez dakizu noiz gurutzatuko diren zure bidean.

Hauetariko animalia batekin topo egiten duen emakumea inpernu batean sartzen da. Gainera, beraien babeserako dauden neurriak nahikoak ez izateaz gain, beraien bizitza kartzela bihurtzen dute. Beraien mugimenduak kontrolatuak dira, bizkartzaina eraman behar dute eta batzuetan ezin dira etxetik atera.

Zergatik bizi behar da emakumea kartzela batean? Erasotzailea izan beharko litzateke atzetik norbait eraman beharko zuena, bere pauso guztiak kontrolatzeko. Emakumea biktima da eta ez du zertan kartzela batean bizi. Biktimak aske izateko eskubidea du eta erasotzailea da inpernuan bizitzea merezi duena.

Biktimak aurrera egiteko eskubidea du, jipoiak eta bortxaketak atzean utzi eta bizitzagaz aurrera egiteko eskubidea du. Inpernua erasotzaileak merezi du. Egin dezagun aurrera eta ia aurrera egiten dugun heinean, bi hankako otso madarikatu hauek atzean geratu eta desagertzen diren. Guztiak gara bat emakumeok, atzerapauso bat ere, zutik emakumeak!

## DURANGALDEA ASTEON

### Eneko Atxak laugarren Michelin izarra jaso du

**ZORNOTZA** Eneko Atxa zornotzarren *Eneko* jatetxeari michelin izar bat eman zioten atzo. Ekainaz geroztik, Atxak *Eneko* izeneko jatetxe berria du, Azurmendi jatetxearen ondoan. Jatetxea ireki eta bost hilabetera Michelin izarra eman diote. Atzo jasotakoagaz, laugarren Michelin izarra du Atxak.

### Hazilan programako izen-ematea, zabalik

**DURANGALDEA** Amankomunazgoak Hazilan proiektuaren hirugarren deialdia jarri du martxan. Gazteen laneratzea sustatzeko asmoz antolatu duten programa otsailean hasiko da, eta abenduaren 15a baino lehen eman beharko da izena. Programaren helburua lan munduko errealitatea gertutik ezagutzeko da.

### 'Tanger Dream' erakusketa, Zornotzan

**ZORNOTZA** 2013 eta 2016. urteen artean Marokoko Tanger hirian Txelu Angoitia durangarrak ateratako argazkien erakusketa ikusgai dago Zornotzako Zelaieta zentroan. Txelu Angoitia argazkilariaren *Tanger Dream* erakusketa abenduaren 20ra bitartean egingo da ikusgai Zornotzan.

## IRITZIA

astekaria@anboto.org  
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako eta emandako iritzien erantzukizunik.

### Errailetatik azalera!

Askotarikoak dira emakumeok hurbil bizi ditugun bortizkeriak. Ez dira puntu more baten barruan kabitzen. Horregatik diogu ez dela nahikoa muturreko egoeren aurrean pankartaren atzean jarri, hedabideen aurrean adierazpenak egin edota betearazleak ere ez diren estatu itunak idaztea. Diskurtso eta praktiken arteko desorekei kasu egiteko momentua heldu zaigu. Azaleko keinuetatik harago joan behar dugu eta errotik heldu behar diegu indarkeria sexista ahalbidetzen duten egitura patriarkalei. Horretarako, lehenetsunak markatu behar ditugu agenda politikoetan, prebentzioan inbertitu beharra dago, zintzoki diharduten erakundeak behar ditugu, benetako borondatea dutenak, ausardia daukatenak eta mugimendu feminista aintzat daukatenak.

Emakumeon\* gorputzek gudu zelai izateari uzteko, gure aurkako gerra bakebidean jartzeko, guztion erantzukizuna behar-beharrezkoa da: norbanako bakoitzak ematen dituen urrats txikietatik hasita, lege ekimen eta estatu politiketaraino. Betiere praktika eraldatzaileetan sakonduz, diskurtso faltsuak apurtuz eta "berdintasunaren aldeko" literatura benetan aplikatuz. Barnetik hasita. Errepara diezaiegun erraiei.

Azaroaren 25ean Durangoko Plataforma Feministatik antolatu dugun manifestazioan parte hartu. Hartu ardura, ez izan matxis-ten konplize! 19:00etan Santa Anan!

Mireia Delgado Exposito eta Maider Huerta Ortuoste Durangoko Bilgune Feministaren izenean




## Olaia Albizu Kastresana (1982) eta Zaloa Uribe Egizabal (1982) | Bubulum elkarteak | Durango

**> BERBAZ** Aitziber Basauri  
Bubulum, halaxe deitzen diote zapaburuari Jinotegan (Nikaragua), eta halaxe du izena bertan bizi diren eta aniztasun funtzionala duten ume eta gazteei laguntzeko jaiotako elkarteak. Duela hamar urte sortu zuten proiektu hau durangar bi hauek, Oñatiko hirugarren lagun batez, eta egun 70 bazkide dira. Neska-mutil horiek bizi kalitatea hobetzea du helburu elkarteak.

**Nola jaiotako proiektua da Bubulum elkarteak?**

**Olaia Albizu:** 2003an hiru lagunek Erdialdeko Amerikara egindako bidaia batean sortutako proiektua da. Dena den, 2006an hasi ginen forma ematen. Orduan ezagutu genuen gugaz lan egiten duen Andres Moreno, Nikaraguara egindako hurrengo bidaian. Berak eraman gintuen Jinotegako (Nikaragua) landa eremura eta behar bereziak dituzten hainbat ume ezagutu genituen han. 2010ean erregistratu genuen elkarteak.



**Zein arlotan egiten duzue lana? Zeintzuk dira helburuak?**

**Zaloa Uribe:** Jinotegako landa eremuetan egiten dugu lan, Nikaraguako iparraldean. Aniztasun funtzionala duten eta behar bereziak dituzten ume eta gazteekin egiten dugu lan hango komunitateetan. Familiarekin ere bai. Ume eta gazte horien bizi-kalitatea hobetzea da helburua. Horretarako, ume horien familiei ere laguntzen diegu. Jarraipen bat ere egiten diegu.

**Zeintzuk premia dituzte ume eta gazte hauek?**

**O.A.:** Arlo guztietan dituzte premiak: osasun eta hezkuntza arloan, zein arlo sozialean. Premia horiek asetzeko lan egiten dugu Bubulum elkarteak. Bizitza duin bat izan dezaten gura dugu.

**Z. U.:** Jinotega hiriburutik kotxez ordubetera daude komunitate hauek, kafe-soroaz inguratuta. Gainera, familia hauen egoera ekonomikoa oso larria da. Ez dute aukera askorik hiriburura joateko; beraz, nahiko isolatuta bizi dira. Mugitzeko arazo handiak dituzte.

**Nola bizi izan dira premia bereziak dituzten ume eta gazte hauek komunitate horietan?**

**O.A.:** Bubulum elkarteak bertan lanean hasi zenean, ezkutuan bizi ziren aniztasun funtzionala duten ume eta gazteak.

## “Ezkutuan bizi ziren aniztasun funtzionala duten ume eta gazteak”

Bubulum elkarteak aniztasun funtzionala duten ume eta gazteekin lan egiten du Nikaraguan

Gurasoek eurek ere ez zituzten zenbatzen beste seme-alaba bat gehiago lez. Zenbat seme-alaba dituzten galdetzean, aniztasun funtzionala zuen hori ez zuten kontuan hartzen. Guk geuk galdetzen genien horiengatik. Maila horretan aldaketa garrantzitsu bat eman da azken hamar urte hauetan, neska-mutil horiek arlo sozialean parte hartzen hasi direlako. Ume eta gazte horien guraso eta familiak hasi dira eskolara eramaten. Arlo sozialean beste paper bat hartu dute.

**Beraz, hamar urte hauetan eman dira pausoak.**

**Z. U.:** Familia hauek beraien gizarte edo komunitatean integratzea lortu da hein handi batean. Kasu batzuk zailagoak dira onartu behar dugun arren, umeetarako asko eskolan integratu dira, komunitateko ekintzetan parte hartzen dute, eta, garrantzitsuena dena, familiek informazio eta baliabide edo erreminta gehiago dituzte bizi duten egoera horri aurre egiteko.

**Komunitate horietako jendea-gaz elkarlanean daramazue proiektu hau aurrera?**

**Z.U.:** Bai. Bertako sei pertsona daude lanean. Lau hezitzaile daude, eta bakoitzak komunitate batean egiten du lan. Behar bereziak dituzten familia hauen etxeetara joaten dira laguntzera. Horrez gain, paper kontuak

“*Familia hauek beraien gizarte edo komunitatean integratzea lortu da hein handi batean*”

“*Arlo guztietan dituzte premiak: osasun eta hezkuntza arloan, zein arlo sozialean*”

daramatzan koordinatzaile bat dago, eta beste bat helduentzako tailer okupazionalak eramaten dituen; hezkuntza bereziko ikastetxe batean irakasle da azken hori. Oso garrantzitsua da emakumeok egiten duten lana, eta harro gaude. Umeekin eta gazteekin eurekin ez ezik, familiarekin eta, batez ere, emakumeekin ere egiten dutelako lan, neska-mutil horien amekin. Emakumeon paperari garrantzia eta indarra ematen dizkiote, borroka horretan, emakumeen jabekuntzan, ere eraginez.

**Sexu abusuak jasan dituzten gaztetxoekin ere lan egiten duzue.**

**Z.U.:** Beste elkarte batzuekin batera eta momentu zehatz batzuetan lan egin dugu alor horretan. Modu puntualean laguntzen dugu. Sexu abusuarekin arazo larria bizi dute, baina ez da gure proiektuaren zati bat, nahiz eta komunitateko etxeetan Bubulumegaz lan egiten duten hezitzaileen lanak baduen eragina arlo horretan. Sexu abusuaren baten aurrean laguntza ematen dute.

**Zeintzuk dira Bubulumen finantziario iturriak?**

**O.A.:** Finantziarioa hiru bidetatik lortzen dugu. Batetik, bazkideen urteko kuotak ditugu: 70 bat bazkide ditugu, eta 52 euroko kuota ordaintzen du bakoitzak. Bestetik, Oñatiko Udalak emandako diru-laguntza —han dago erregistratuta Bubulum elkarteak— dugu. Horrez gain, askotariko ekintzak antolatzen ditugu proiektuak garatu ahal izateko egiten lortzeko: Oñatiko azokan egoten gara, eta Durangon Goienkalen asteburuan zotz egiten diren otzarekin ere lortzen dugu dirua.

**Zein da Bubulumen etorkizuneko erronka?**

**Z.U.:** Aniztasun funtzionala duten ume hauen ongizatea bermatu dezala Nikaraguako gobernuak. Hori da elkartearen erronka. Uste dugu herrialde horretako gobernuak bere gain hartu beharko lituzkeela ume eta gazte hauen hezkuntza, osasun eta gizarte arloko premiak. Hori lortu arte, Bubulumek han jarraituko du lanean.

Asier Elias, Jon Garcia eta Ritxi Blanco | Mocker's taldeko bateria-jotzailea, baxu-jotzailea eta gitarrista | Durango, 1993

## “Mocker's izan aurretik lagunak ginen, adiskidetasuna da bizirik irauteko gakoa”

Beats of Freedom osorik joko dute gaur Plateruenean, Porco Bravogaz batera, 22:00etan



Sara Estebez eta Kepa Bordes

**> MUSIKA** Aritz Maldonado  
Bizitzaren herena daramate Mocker's-eko kideek musikari lotuta, eta nabarmentzekoa da hori 24 urte baino ez dituztela kontuan hartuta. Dozenaka kontzertu eskaini dituzte Euskal Herrian, eta bakoitza azkena balitz bezala gozatzen dute. Beats of Freedom lan berria aurkeztuko dute gaur Plateruenean, dakiten modurik onenean: taula gainean guztia emanez.

Nolako harrera izan du diskoak?  
R.B.: Ona, momentuz. Esan digute igartzen dela jauzia, bai konposizioetan, bai soinuaren.  
J.G.: Ez dakigu hori lagunak dirrelako esan ote diguten, baina! (barrez).

Diskoa entzunda, badirudi helduagoa dela hau, eta soinu aldetik, astunagoa. Bilatzen zenuen zerbait izan da?  
R.B.: Natural irten zaigu horrela. Aurreko lanean, beharbada, 70eko hamarkadako soinuaren bila ibiliko ginen, baina, oraingoan, pisu gehiago izan dute sentimenduek, buruak baino. Sortu ahala eman diogu forma.  
J.G.: Abestietan guri gustatzen zaiguna egiten dugu. Jendeari gustatzen bazaizkio, hobeto, baina ez dugu hori bilatu.  
A.E.: Erritmoak, adibidez, bihu-

“*Radio' abestian ez dago metaforarik, ez dugu gustuko gaur egungo irrati eredu*”

rriak dira, guri horrela gustatzen zaizkigulako.

Guilty of Being White kantua aurreratu zenuen joan den astean. Haserre zaudete munduagaz?  
A.E.: Diskoan errepikatzen den konstante bat da. Egungo munduaren egoera zoramena da.  
R.B.: Ez da disko kontzeptual bat, baina ildo orokor bati jarraitzen saiatu gara. Krisiei buruzkoak dira hitzak, krisi ekologikoa, politikoa, soziala... Gazteak gara eta haserre gaude!

Ingelese abestu duzue beste behin. Erosoago zabiltzatelako?  
R.B.: Entzuten dugun musika, nagusiki, ingelesez da, eta arraroa egiten zaigu beste modu batera egiteak. Disko honetarako, euskarazko pasarte bat erabili dugu, errezeitatuta. 2011an idatzi nuen hori.  
J.G.: Saiatu izan gara; aurreko

diskoko abesti bat euskaraz zen, adibidez.

“What's this shit on the radio' abesten duzue. Zergatik?  
R.B.: Radio abestian ez dago metaforarik: ez dugu gustuko gaur egungo irrati eredu. Ez musika aldetik, ez mezu aldetik.  
J.G.: Ez diogu rocka bakarrik egon behar denik, denetik egoitea gura dugu.

Plateruena aukeratu duzue aurkezpenerako. Zergatik?  
A.E.: Oso ondo zaindu gaituzte beti, eta sonoritate oso ona du.

“*Gustatuko litzaiguke lan berri honeguz Euskal Herritik kanpora gehiago irtetea*”

R.B.: Luxua da Durangon horrelako areto bat edukitzea.

Eta hemendik aurrera?  
R.B.: Kontzertu batzuk lotu di-

tugu, eta gure asmoa ahalik eta gehien jotzea da.

A.E.: Asko gustatuko litzaiguke kanpora irtetea, ea ze aukerara dagoen.

J.G.: Leku berriak ezagutzea eta zure musika beste toki batzuetara eraman ahal izatea motibazio berri bat da.

Gaztetxean ala makrojalaldian, zeinetan gusturago?

R.B.: Niri gaztetxeak edo areto txikiak gustatzen zaizkit, dudarik barik! Bertan sortzen den zirrara hori bakarria da.

A.E.: Niri gehiago gustatzen zaizkit aretoak. Jotzean gehiago disfrutatzen dut ondo entzuten bada.

J.G.: Toki handietan aritzeak jende gehiagorengana iristea errazten du, baita ere.

R.B.: Iritzi ezberdinak ditugu, baina badakigu adostasunetara heltzen.

Hori da zortzi urte elkarregaz irauteko sekretua?

R.B.: Adiskidetasuna da gakoa. Mocker's sortu baino lehen, lagunak ginen; hau apurtzea lagun arteko lotura apurtzea litzateke. Aitak sarri esan dit gure altxorrik handiena eskolako lagunekin joan ahal izatea dela. Eskolako lagunekin lortu ahal izan dut The Darknessegaz jotzea, Mundaka Festivalen jotzea eta bi CD kaleratzea.

J.G.: Ez dago dirurik hau ordainduko duenik! Asteburuetan bada ere, gustura gatoz entsetzera.

A.E.: Nik musika ikasketak ditut, baina niretzat ez dago Mocker's-egaz jotzea bezalakorik. Honi esker iritsi naiz naizena izatera. Hau familia da, eta ezin da galdu!


## Zortzi “askatasun kolpe”, 40 minutuko bidaiarako

Silver Recordingsen grabatu zuten, irailean

Capsula taldeko Martin L. Guevararen gidaritzapean grabatu dute durangarrek *Beats of Freedom* disko berria, Bilboko Silver Recordings estudioetan. *Percute Animas* aurreko diskoan bezala, hiru taldekideek elkarregaz grabatu dituzte abestiak. “Martinek gure filosofia berdina du: rocka zuzenean jotzen da”, azaldu du Blancok.

Diskoaren azala Smoke Signal estudioko Markel Urrutiak egin du. Urrutiak nazioarteko taldeekin egin du lan, Mars Red Sky taldeagaz, adibidez.

Plateruenekoa, berezia  
Ohiko rocka baino urrats bat urrunago doaz *Beats of Freedom*-eko abestiak. Adibidez, diskoa ixten duen (*R*)evolution abestirako, soken laguntza

Beats of Freedom  
Mocker's

izan dute. “Pink Floyd edo King Crimson gogoratzen zingun abestiak, eta hurbiltzen saiatu gara”. Grabazioan Ane Ibarrak (biolina) eta Nerea Aizpuruak (biolontxeloa) parte hartu zuten. Gaurko kontzertuan ere arituko dira, zortzi minutuko obra ahalik eta modurik fidelenean erakusteko. Pianoan Ritxiren anaia Jose A. Blancok lagunduko die.

# “Grabaketa soil bat baino gehiago, omenaldi bat izan da hau”

Asier Bilbao ekoizle exekutibo durangarra elkarrizketatu dute ALEAn



Asier Bilbao, grabazioko une batean. Arabako ALEA.

**> ZINEMA** A. M. 1976ko martxoaren 3an polizia espainiarrak Gasteizen egin-dako sarraskia dakar gogora *Vitoria, 3 de marzo* (Gasteiz, martxoak 3) pelikula. Bertako produktore exekutiboetako bat da Asier Bilbao durangarra. Bost asteko grabaketa lanaren ostean, posproduzio beha-

rretan ari dira orain. Pelikula 2018an estreinatuko da.

Azkeneko lau urteak proiektuan buru-belarri behar eman ditu taldeak. Dokumentazio lanetarako, Martxoak 3 elkartearen laguntza izan dute, gainera. Lan asko egin dutela onartu arren, pozik dago Bilbao; kanpoaldeko grabaketetarako,

gainera, eguraldi eguzkitsua eduki dute. “Durangarra izan arren, banuen gertatutakoaren berri, baina gutxi. Gasteizen adineko jende guztiak gogoratu du zer eginen ari zen egun hartan”, adierazi du Bilbao. Bitxikeria ugari izan dituzte grabaketan. Adibidez, 1976ko egun hartan zeraman jantzi

berberekin agertu zen figurante bat grabaketara. Beste behin, *3 de marzo, nosotros no olvidamos* (Martxoak 3, guk ez dugu ahazten) abesten hasi ziren aktore boluntarioak. “Ez da grabaketa soil bat egin, askorentzat omenaldi bat izan da hau”, azaldu du Bilbao.

Gasteizko Zaramaga auzoan gertatutakoak dira pelikularen ardatza. Polizia espainiarrak bost lagun hil zituen langile protesta bat disolbatzen ari zela. Testuinguru horretan, 17 urteko

1976ko martxoaren 3an Gasteizko Zaramagan gertatutako sarraskia da pelikularen ardatza

Begoña gaztea eta bere familia dira pelikulako protagonistak.

Euskal Herrian inoiz egin den grabaketarik jendetsuena da hau, Bilbaoren berbetan. “Guztira, 3.500 bat lagunek parte hartu dute, eguneko 650 batez beste. Zifra hori ez da batere normala gure zinemarako”, dio harro durangarrak.

Hasiera batean, pelikula 2018ko martxoaren 3an estreinatzea zen asmoa, baina atzeratu egingo dela ziurtatu du produktore exekutibo durangarrak. Datorren urteko udaberrian edo udazkenean estreinatuko dute.

## GEURE DURANGALDEA

**LIBE MIMENZA CASTILLO**

Kazetaria



## Imajinatu

Imajinatu atzetik gerturaten natzaizula. Kamisetapetik sartu eskua. Gerri erditik aurkitu bidea zure bularrera, besapetik fereka. Biluzten zaitut, bizkarreko giharrak tenkatzen zaizkizun uean biratzeko. Nire kontra estutu, zure usaina larruazalean itsasterainoko dantza abiatzeko haragi gosez. Kosk egiten dit desirak ezpainean, odolaren pultsioa nabari dut. Baina zure begiradak paralizatu du kolpean dena. “Ez” diozu. Ez dago elkarrenganako zubirik. Segundora ulertu dut: geldi. Horixe da zurekin egingo nukeena. Sinesten didazu, ezta?

Imajinatzen dut eskuak sorbalda lotzen dizkizudala. Aulki baten kontra bultzaka bota eta immobilizatu gorputz-adarrak. Ahoa iltzete, zintaz itxi. Ilea errotik erauzi, kimikoz itsutu begiak. Orduan zure barribalak kable fin batez inguratzen ditut, zirkuluka etenez zirkulazioa. Uretratik iltzatu burrunntzi luze bat. Inoiz gehiago eiakulatuko ez duen abere bat baino ez zara orain. Hori da san ferme-tako parasito saldoarekin egingo nukeena. Sinesten didazu, ezta? Eraso jasan duenarekin elkartasun mezu eliztarrez bete zaizkigu inguruak. “Sinesten dizut” diogu. Zalantzarik al da?

Imajinatu tamainako kanpaina, ezeta gelditzeko agindu zorrotza dela dekretatzeko behingoz. Imajinatu ez garela isilduko, salaketa bat ere ez dugula ostenduko. Boterea galtzearen beldur denak alda dezala sexua. Hau gerra bat da.

# Igor Elortza, BECeko finalerako pauso batera

Domekan du finalerako saioa durangarrak

**> BERTSOLARITZA** A. M. Bi saio baino ez dira geratzen abenduaren 17an BECen izango den Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaren aurretik. Domeka honetako finalerakoan, Igor Elortzak abestuko du. Saioa Donibane Lohizunen (Lapurdi) izango da. Finalerdietako bi itzulietan punturik

gehien lortzen dituzten zazpi bertsolarien lortuko dute finalerako txartela. 703 puntu lortu zituen durangarrak aurreko itzulian, eta, beraz, finalera sailkatzeko aukera nahiko ditu.

Elortzagaz batera, Agin Laburu, Iñaki Apalategi, Jone Uria, Julio Soto eta Maialen Lujanbio arituko dira bertsotan.



Igor Elortza bertsolaria Bastidako saioan.

**Ploc, Ploc... PLIK!**  
Pasadas las 4

Azaroaren 26a  
17:30 / 18:45

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021  
sanagustin@durango.eus

San Agustin KULTUR GUINEA

**PLATERUENA** Durangoko Kafe Antzokia [www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)  
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

**JAT ETX EA**

EGUNEKO MENUA  
OSPAKIZUN BEREZIAK

**AZAROAK 24**  
22:00ean  
**PORCO BRAVO MOCKER'S**  
KONTZERTUA

**AZAROAK 25**  
21:30ean  
**MIKEL URDANGARIN**  
KONTZERTUA

**ABENDUAK 1**  
21:30ean  
**JAM SESSION**  
JAM SESSION

# Deskontu Sarea, abian!

Orain,  
**BERRI**lagunek  
deskontuak tokiko  
saltokietan!

Sartu webgunean, eta baliatu deskontuak:  
[berria.eus/berrialaguna/deskontusarea](http://berria.eus/berrialaguna/deskontusarea)

## Deskontu kupoi bat baliatu nahi duzu?

1. Sortu kontua **BERRI**lagunaren webgunean
2. Inprimatu kupoa Deskontu Sarea ataletik edo deskargatu telefonoan
3. Aurkeztu dendan **BERRI**lagun txartelarekin batera

Zure ekarpena deskontuen bidez berreskuratuko duzu:

- > Dendak
- > Jatetxeak
- > Museoak
- > Landetxeak
- > Ikuskizunak
- > Aisialdi guneak

**berria laguna**

[berria.eus/berrialaguna](http://berria.eus/berrialaguna)

ABIZENA, IZENA  
01234567

Babestu **BERRIA** eta gozatu abantailez!

**berria**  
mundua-euskarari-emana



52. Durangoko Azokarako arduradunak eta sortzaileak batu ziren Landako Guneko aurkezpenean.

## 400 nobedade baino gehiago 52. Durangoko Azokan

Azoka osatzen duten zortzi guneeetan 200 kultur ekitaldi baino gehiago egongo dira; abenduaren 6tik 10era sormenaren lurraldea izango da Durango

### > AZOKA A.M.

Azken bi urteetan bezala, bost eguneko azoka izango da. Abenduaren 6tik 10era arte 200 kultur ekitaldi baino gehiago egongo dira bertan, eta, guztira, 400 nobedade aurkeztuko dira 240 postutan. Areto nagusiaz gainera, beste zazpi gune izango ditu aurtengo azokak: Saguanbara, Azoka TB, Plateruena, Irudieña, Szenatokia, Kabi@ eta hamar urte bete dituen Ahotsenea. Guneek iazko kokapen bera izango dute.

Nobedade nagusi bategaz dator 52. Durangoko Azoka. Hain zuzen ere, beka bihurtuko dute Argizaiola saria.

Gerediaga elkarteak erabaki du *Omentzetik ereitera* beka izatea hemendik aurrera. Hogeita bost urteotan kultur alorrean aritu direnak omendu ditu sari honek. “Euskarazko kultur sorkuntzari ekarpena egiteko asmoz, sortzaile berriei laguntza eskaini gura die Durangoko Azokak beka honen bidez”, azaldu du Nerea Mujika Gerediaga elkartearen lehendakariak. Beka hori aurkezteko ekitaldia abenduaren 10ean izango da, 20:00etan, San Agutin kultur gunean.

Aurrekontua 646.000 eurokoa da, iazkoa baino %4 txikiagoa. Mujikaren berbetan,

sektore pribatutik diru gutxiago jaso da aurrean. “Azokak aurrekontu horregaz egiten duen ekarpena handia da, bai transmisioari eta zabalkundeari dagokienez, bai sektoreari eta eskualdeari egiten diena. Kalkulatu dugunez, bertan inbertitzen den euro bakoitzeko hamar etortzen dira bueltan”, adierazi du Mujikak.

Durangoko Azokak irauten duen bost egunetan emisio jarraitua eskainiko dute euskarazko tokiko telebistetan, eta Durangoko Azokaren webgunean bertan streaming bidez jarraitu ahalko da ([www.durangokoazoka.eus](http://www.durangokoazoka.eus)).

## Dantza garaikidea eta teknologia eskutik

Jordi Vilasecak zuzentzen duen Nagare, Arriolan

### > DANTZA A.M.

Logela Multimedia elorriarren eta Circle of Trust dantza taldearen elkarlanetik jaio zen Nagare ikuskizuna gozatu ahalko da gaur Arriolan. Diziiplina ezberdinak nahasten dira ikuskizun honetan, hip hop, break dance, sorkuntza garaikidea eta multimedia, besteak beste. Istorioaren ardatza, berriz, inguruak norberarengan duen eragina da. “Prozesu horren jakitun gara?” diote. Eragin horietan sakonduko dute dantzaren eta teknologiaren bidez.

Logelak hainbat proiektu ditu esku artean, tartean Nagare hau. Circle of Trust, berriz, Zaragozatik datoz. 2002an sortu

Hip hop, Break dance, sorkuntza garaikidea eta multimedia uztartzen ditu Nagare ikuskizunak

zenetik, beraien helburua kaleko dantza arlo profesionalera eramatea izan da.

## Orduñak gidatuko du Tabira Musika Banda

Bi emanaldi zuzendu ostean, gabonetako kontzertua prestatzeko lanetan ari dira orain

### > MUSIKA A.M.

Aste Santuan eginiko hautaketa prozesu baten ondoren aukeratu zuten Tabira Musika Bandako kideek Luis Orduña zuzendari laneratarako. “Orduña izan zen gehien gustatu zitzaiguna, konbentzitu gintuen”, adierazi du bandako kide den Josu Otxotorenak.

Esperientzia handiko musikaria da Orduña, izan ere, 37 urte gaz, Zumarragako eta

Sakanako Haize Berriak bandetako zuzendaria ere bada, besteak beste.

Gabonetan eman ohi duten kontzertua prestatzeko lanetan ari dira orain. Emanaldi berezia izango da, eta Bartolome Ertzillako musikarien laguntza izango dute. Horrez gainera, Jose Gallardok ere parte hartuko du kontzertuan. Emankizuna abenduaren 17an izango da, Andra Mari elizan.

### > ANTZERKIA A.M.

Arazo pertsonalengatik emanaldia bertan behera utzi ostean, Atara Zarata antzerki talde durangarraren *Eingo al deu?* antzezlanaren aurkezten ikusteko aukera egongo da, berriz. Emankizuna azaroaren 30ean izango da, gaztetxean. Obraren ezizena, taldearen aldaketak egon dira ordutik. Oraingo honetan, Markel Ganboa, Iker Villa, Peio Velasco, Iker Garate, Alex Garcia eta Ane Moreno izango dira aktoreak. Julene Bernaolak zuzenduko du obra, berriz.

Zazpi esketxek osatzen dute *Eingo al deu?*, eta euskaldunen sexualitatea da esketx horien ardatza. “Aldaketa txiki batzuk egin ditugu obran, baina espero dugu hauek gustuko izatea”, azaldu du Markel Ganboa Atara Zarata taldeko kudeatzaileak.

Atara Zarataren antzezlanaren Durangoko Plateruenean estreinatuta zuten, maiatzean. Ostean, Bilbon, Erandion eta Gasteizen aurkeztu dute obra. Pozik daude taldekideak lanak izan duen harreragaz. “Herri bakoitzetik zerbait eraman dugu, eta uste dut guk ere haiengan zerbait utzi dugula”, azaldu du Ganboak. Antzerki taldearentzat esperientzia bat izaten ari da gainera, obra Euskal Herriko hainbat antzokitara eraman ahal izatea. “Ditugun beste proiektuekin ez gara hainbeste mugitu; errealitate ezberdinak ezagutu ditugu”, argudiatu du antzerki taldeko kudeatzaileak. Negurako, beste bi emanaldi dituzte lotuta, abenduaren 22an Anoetan (Gipuzkoa), eta urtariraren 20ean Igorreko (Bizkaia) Kiñu gaztetxean.

## Sexu harremanei buruzko ‘Eingo al deu?’ obra ikusteko beste aukera bat

Uda aurretik Zaldibarren egitekoa zen emanaldia bertan behera geratu zen



Atara Zaratako kideak, obra Erandion aurkeztu zutenean.



Juan Jose Gude Prego | Donostia, 1975 (Durangon bizi da) | Eskubaloi epaile eta entrenatzailea

# “Epaile baten ikuspuntutik zalerik txarrenak jokalarien gurasoak izaten dira, duda barik”

Emakumeen zein gizonen Asobal ligetan epaile diharduen donostiarra Ibaizabal taldeko gaztetxoak entrenatzen hasi da

**> KIROLA** Joseba Derteano

Juan Jose Gude eskubaloiko epailea da. 15 urte daramatza emakumeen lehenengo mailan eta 14 eman ditu gizonen Asobal ligan. EHU-n fisika ikasketak burutu dituen eta Deustuko unibertsitatean ingeniartza irakaslea den donostiarra zientzialari batek ohikoa duen zehaztasunagaz erantzun die kazetariaren galderei. Harira joanda, ingurumarietan galdu barik.

Ez futbola, ez saskibaloia, bai zik eta eskubaloia eta, gainera, epaile. Azaldu egin behar ko didazu...

(Barreak). Umetan Donostia-ko Jesuitak ikastetxean eskubaloian hasi nintzen. 14 urte gaz, eskola kirolean epaile eskasia zegoela-eta, ikastaro bat egitea proposatu ziguten. Hasieran, biak bateratu nituen. Ondoren, 18 urte gaz, ikasketak zirela-eta jokalaria izateari utzi nion, eta epaile jarraitu nuen, gustatzen zitzaidalako.

**Epaile lanak esker txarrekoa dirudi. Zergatik hor zentratu?**

Batetik, bestela ezagutuko ez zenuen jende asko ezagutzeko aukera eskaintzen du. 21 urte gaz maila nazionalera igo ninduten, eta estatu osotik ibiltzeko aukera nuen. Bestetik, nire kasuan, gustuko nuen kirolagaz lotura bat mantentzeko aukera eskaini zidan. Balioak ere eskaintzen ditu: errespetua, segundo-hamarrenetan erabakiak hartzeko erantzukizuna...

**15 urtez asteburu askotan lanean. Gustuko tokian aldaparik ez?**

Batzuetan lan sakrifkatua da, jakina. Denbora eskaini behar diozu zure afizioari, sarritan familiarri kenduta. Baina, diozun moduan, gustuko tokian aldaparik ez. Gustatzen zait, eta munduko ilusiorik handienagaz egiten dut.

**Zaleen partetik, zelakoa da epaileekiko tratua?**

Eskola kirolean zaila da. Maila horietako epaileak gazteak dira, esperientzia eta prestakuntza falta zaie eta jokalarien gu-



Eskubaloiak eman dion pozik handienetakoa epaile lanetan anaiagaz batera aritzea dela dio.

rasoen partetik presio handia jasaten dute. Epaile baten ikuspuntutik, zalerik txarrenak gurasoak dira, duda barik. Eta hori, eskubaloia ez dela futbola kontuan hartuta. Nire ustez, eskubaloian askoz ere agresibitate gutxiago dago, futbolagaz alderatuta, esaterako. Futbolearen denek uste dute arauak bada-kizkitela, dena ulertzen dutela eta badutela epailea kritikatzeko eskubidea. Baina azterketa bat eginez gero, seguruenik huts asko egingo lituzkete. Eskubaloian ez da maila horretara heltzen, baina, edozelan ere, oso garrantzitsua da psikologikoki ondo prestatzea. Erabakiak denbora gutxian eta estres egoeran hartu behar dira. Asobal ligan txistuak eta presioa izaten dira, baina epailea prestatuago dago horri aurre egiteko.

**Estatuan nongoak dira zalerik gogorrenak?**

Tira, esan dezagun hegoaldean beste edonon baino apur bat suharrago protestatzen dutela.

**Imajinatu: partidua amaitu da eta susmoa duzu erabaki garrantzitsu batean huts egin du-**

**zula. Etxera daramazun buruko mina izaten da?**

Bai. Zaleak ez du epailearen lana ezagutzen. Epaitutako partidua denetako bideoak ikusten ditugu, egindako akatsak aztertu eta zuzentzeko. Ez hori bakarrik. Epaile izango garen partiduetako taldeen bideoak ere ikusten ditugu. Talde batek zelan jokatzeko duen jakinez gero, zelako egoerak sortu daitezkeen aurreikusitako dezaie. Hori zaleek ezagutzen ez duten alderdia da. Epaile batek lan handia egiten du etxean, gero eta epaile hobe izateko. Ordu asko eskaini behar dizkiozu.

**Futbol epaileei kosta egiten zaie irizpide bateratuekin aritzea. Eskubaloian ere arazo hori badago?**

Eskubaloian epaile bi daude. Beraz, beste horregaz irizpide antzerakoak izatea funtsezkoa da. Sarritan ez da arazo handia, pertsona horregaz urteak daramatzazulako. Ni, esaterako, anaiagaz aritzen naiz. Urte asko daramatzagu elkarregaz eta bata besteari ezagutza sakona dugu. Anaiagaz aritzeko aukera eskubaloiak eskaini didan

pozik handienetakoa da. Urtean zehar batzarrak ere egiten ditugu irizpideak bateratzeko.

**Jokalariek, txarto jokatu dutenetan, inguru zabala dute animoak jasotzeko. Epaile batek non bilatzen du aupada hori?**

Epaile lanetan lankide duzun horrengan bilatzen duzu. Alderdi mentala funtsezkoa da epaile batengan. Partiduetan akats bat egiten duzunean eta horren jakitun zarenean, egoerari buelta ematen jakin behar da. Ez dago geratzerik.

**Akats bat beste batez konpentsatzea da epaileak egin dezakeen hanka-sartzerik handiena?**

Bai, inolako dudarik barik. Baina ez akats bikoitza delako bakarrik. Kontzientzia lasai ez duzun seinale ere badelako. Partiduaren kontrola izatea oso garrantzitsua da.

**Baduzu bereziki gogoratzen duzun partiduren bat?**

Asobaleko lehenengo partidua, anaiagaz aritu nintzen aurreneko aldia... 2013an Mediterraneo-ko Jokoetan ibili nintzen, Tur-

kian. Oso esperientzia aberasgarria izan zen.

**Orain Jesuitetan entrenatzaile ere bazabiltza Ibaizabal taldeko neska gazteekin.**

Iaz, Kirolenen, goi-mailako entrenatzaile teknikari ikasketak egin nituen. Eskubaloian buruz gehiago jakiteko egin nuen, jakintzan sakonduz epaile hobe izateko. Jesuitetan oso pozik eta asko ikasten nabil.

**Eta epaileak kritikatzeko dituen entrenatzaile bihurtzen bazara?**

Ez, ez (barreak). Fraile izan aurretik sukaldaria izan bainaz! Puntualki eta edukazioagaz zerbait eskatu nezake, baina gatazkarik eragin barik, errespetuz.

**Zazpi urteko semea eskubaloian dabil?**

Kirol anitzak dituzte oraingoz, eta zapatu batzuetan eskubaloian aritzen da. Mutilen talderik ez dagoela da arazoa. Haur-kategoriara arte neskato-mutikoak elkarregaz aritzen dira. Hortik aurrera... klubean ez dute baztertzen mutilen adarra sortzea. Ea posible den.

# “Guretzat orain hasi da denboraldia, eta partiduz partidu aurrerantz joan behar dugu”

Idoia Simon Euskal Liga jokatzeko dabil Elorrio Futbol taldeagaz. Une honetan indartsu ikusten du taldea

**> FUTBOLA** M.Zuazubiskar  
Denboraldi hasiera gogor baten ostean, Elorrioko nesken taldea sasoirik onena hartzen dabil berriz ere. Azken partiduetan, Elorrioko neskek maila izugarria erakutsi dute, eta aurkariak erraz menderatu dituzte. “Guretzat orain hasi da denboraldia, eta partiduz partidu aurrerantz joan behar dugu”, adierazi du Idoia Simon Pacheco Elorrio taldeko jokalaririk (Elorrio, 1996).

Elorrioko nesken taldeak hirugarren denboraldia daruma Euskal Ligan jokatzeko, eta Simonek aitortu duenez, liga hasieran sailkapen nagusian aurrean ibiltzea helburu zuten arren, gauzak ez zaizkie gura izan duten moduan ateratu. “Aurre-denboraldia ezin izan genuen geuk gura bezala egin. Orduan, horrek denboraldi hasieran eragin digula esan daiteke”, jarraitu du Elorrioko aurrelariak.

Hala ere, egindako hutsak aztertuz eta gogor lan eginez,



21 urte ditu Idoia Simon aurrelariak.

Elorrioko taldea hasi da emaitza onak lortzen. “Gontzal Arana entrenatzaileak partidu guztiak aztertzen ditu, eta, ondoren, partiduetan egindako hutsei irtenbideak jartzen dizkio entrenamenduetan. Hori ezinbestekoa da emaitzak hobetzeko”,

adierazi du aurten Elorrioko taldera itzuli den Simonek.

Duela lau urte, etxeko talde nagusiagaz Bizkaiko Ligan jokatzeko zuten 21 urte baino ez dituen elorriarrak, baina futbol hamaika utzi eta areto-futbolera pasatzea erabaki zuten. Aurten,

berriz, Elorrioko talde nagusira itzuli da. “Areto-futbola lagun arteko zerbait zen, jolas bat. Nik, berriz, seriotasun bat gura nuen, eta taldera itzultzea pentsatu nuen. Egia esan, ez naiz damutzen hartutako erabakiaz”, bukatu du Simonek.

## ADITUAREN TXOKOA

**KEPA ARROITAJAUREGI EGAÑA**

Pilota teknikaria



### Zer ikusia, zer gozatua

Bat baino gehiago izango gara oraindik Mikel Urrutikoetxeak aurreko igandeko 41/2 ko finala galdu izanagatik penatuta gaudenak. Dena den, ‘kaiola’-ko finala galtzeak ez du zaratamorra pilotari eskasagoa egin, ez eta irabazi bazuen, txapeldunago egingo. Mikel Urrutikoetxea pilota profesionalen erreferente bihurtu da eta hala izango da, seguruenik, hurrengo hamarkadan.

Lau eta erdia jada iragana da eta esku pilota munduan jada badugu zer ikusia, zeri jarraitua eta zertaz gozatua. Ez dago atzera begiratu beharrik. Urrutikoetxeak berak ere ez du egingo, beste lehiaketa bat baitu jadanik helburu. Eta bere ‘kategoria’ dela eta, normaltzat hartu behar da Mikel eta Ladis bikote lez jartzea binakakoan. Hain zuzen, azken urteetako bikote igualtsuenak egin dituzten honetan. Halere, ikustear dago nafarrak maila gorenean maila ematerik baduen. Beste bi bizkaitarrek, horrenbesteko ‘caché’ gabe, kide onenetakoak izango dituzte, Larunbek Oinatz eta Elezkano II-ak Rezusta.

Amateur mailan lehiaketa asko daude jokoan, baina zutabe honetan Mundiala eta Euskal Selekzioa aipatu behar ditut. Bai, ondo irakurri duzue. Euskal selekzioa Kolonbian da CIJB erakundeak antolatutako Joku Zuzenen IX. Munduko Txapelketan. Larunbatean abiatu ziren pilotariak bertara eta maila ona ematen ari dira hainbat jokalmodeetan. Euskal selekzioan bost bizkaitar, eta artean bi berto-berto-koak; Amaia Araiztegi (Mallabia) eta Egoitz Amantegi (Abadiño). Animo denei!

## Labaka eta Arratibel Olazarreko finalerdietan

Zabala eta Etxebarria binaka, eta Zubiria eta Lerenak lau t’erdian ere sailkatuta daude dagoeneko



Finalak abenduaren 31n jokatuko dituzte, urtero moduan.

### > ESKU PILOTA J.D.

Zaldibarko Olazar Pilota Txapelketa azken txanpan sartuta dago. Hasi ziren 48 pilotarietatik gutxi batzuk geratzen dira oraindik txapela janzteko aukerakin. Labaka eta Arratibel dira horietako bi. Joan zen astean finalerdietarako sailkatu ziren.

Arratibel eta Labakagaz batera, Zabala eta Etxebarria ere finalerdietan daude. Lehenengoek 22-17 menderatu zituzten Lerenak eta Perez, eta bigarrenak apur bat erosoago aritu ziren Expositoren eta Sanchezen kontra: 22-15.

Lau t’erdian, berriz, Zubiriak eta Lerenak inolako arazorik barik lortu dute finalerdietarako txartela. Zubiriak 22-4 xehatu zuten Iriarte, eta Lerenak beste

hainbeste egin zuten Garciagaz: 22-5. Finaleko beste protagonistak atzo erabaki zituzten.

Finalerdietan hiru jardunalditan banatuta jokatuko dira:

Olazar txapelketako finalerdietan abenduaren 7an, 14an eta 21ean jokatuko dituzte

abenduaren 7an, 14an eta 21ean. Final handia Gabon Zahar egunean izango da.

Abenduaren 30ean, 18:30ean, lagunarteko partiduekin jaialdia antolatuko dute sanandresak ospatzeko.

## Lekuan lekuko egutegia

Ohiko saltokietan salgai

anboto



2€

Anboto Komunikabideak @anboto @anbotokomunikabideak



clínica dental **hartzklinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK  
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - [ucdental@gmail.com](mailto:ucdental@gmail.com)

**IREKITZE  
HANDIA  
ABENDUAK 1**

**BEKATU BAKARRA  
HAIEK EZ  
PROBATZEA DA.**

**0,99€**  
-etatik  
kiloa



*Gurekin  
lan egin  
nahi duzu?*  
[aldi.es/TrabajaConNosotros](http://aldi.es/TrabajaConNosotros)

Ingarritako prezioaren produktua. Gailaren sagarra 4 kg-eko poltsan (100 € / unitatea). Produktu: freskoen prezioak urtaroren arabera aldatu ahal izango dira. Aldi Durango denaldin (Mallabiena auzoa, z/g (N-634aren ondoan)) abaratuaren artean. 3ra balioko prezioak.

**ALDI DURANGO**  
MALLABIENA AUZOA, Z/G  
(N-634AREN ONDOAN)

ASTELEHENETIK LARUNBATERA  
9:30ETATIK 21:30ETARA

**ALDI**

SUPERMERCADOS

LO QUE VALE MUCHO  
CUESTA MUY POCO.



# Olabegeaskoetxeak Euskadiko Slalom Txapelketa irabazi dezake asteburuan

Azpeitiko probaren faltan lider dago eta 11 puntu ateratzen dizkio Raul Perez bigarren sailkatuari



Iñigo Olabegeaskoetxea, erdian, Zestoako proban irabazitako garaikurragaz.

**> AUTO LASTERKETAK** J. Derteano Iñigo Olabegeaskoetxeak (Atxondo, 1982) Euskadiko Slalom Txapelketa irabazteko aukera handiak ditu. Asteburuan Azpeitian lehiatuko den azken probaren atarian lider dago eta

11 puntu ateratzen dizkio Raul Perez. Bere ibilbideko bigarren txapela litzateke slalomean. Orain hamarkada bat irabazi zuen aurrenekoa.

Txapelketako aurreneko hiru probak irabazita —Bakion,

Usansolon eta Zestoan— indartsu hasi zuten denboraldia Olabegeaskoetxeak eta Iñaki Narbaiza kopilotu eibartarrak. Zorte apur bat izan zutela ere onartu du atxondarrak, batez ere estreinako lasterketan. “Be-

rez, Raul Perezek gure BMW 318a baino auto hobea du. Zestoan aurretik zihoan, baina motorra apurtu zuen eta geuk irabazi genuen”, gogoratu du.

Azkenengo probetan Perez apurka-apurka aldean jaten ari da eta sailkapena estutu du. Hala ere, abantaila politari eusten dio oraindik, proba bakarria falta dela kontuan hartuta, baina ez du espekulatzeko asmorik. “Aldeagaz jokatzeko hasten bagara dena galtzeko arriskua dugu. Nire mentalitatea lasterketa irabaztera irtetea da”, adierazi du Euskadi Racing taldeko pilotuak.

**Espainiakorako babesle bila** Aurten ez du rallysprint txapelketan parte hartu. Izan ere, BMW M3 berri bat prestatzen ari da. Hurrengo denboraldian Espainiako Igoeren Txapelketan aritza da bere nahia. “Auto lehiakorra dugula uste dut”, adierazi du. Baina behar moduko autoa izatea ez da nahikoa. Gastuei aurre egiteko babes ekonomiko ere beharrezkoa da. “Babesleak lortzea ez da erraza.

Neguan zehar bulegoko lana egitea egokituko zaigu. Ea asmoa aurrera atera dezakegun. Abentura polita litzateke”, adierazi du. Modu jarraian parte hartzen duen lehenengo aldia litzateke.

## Lur gaineko probak

Aurten, gustuko duen beste espezialitate bat berriro probatzeko aukera ere izango du: lur gaineko lasterketak. Errioxako proba batean aritu da, eta Slalom Txapelketa amaitu eta hurrengo asteburuan beste batean

**Espainiako Igoeretan** aritzeko autoa prestatzen dabil, eta babesleak lortzen saiatuko da

“Babesleak lortzea ez da kontu erraza. Neguan bulegoko lana egitea egokituko zaigu”

parte hartzeko asmoa du. “Asko gustatzen zaidan espezialitatea da. Urteetan, denbora faltagatik, ez dut gura nuen beste probetan parte hartu, eta aurten gozatzen ari naiz”, onartu du.

## Amorebieta esnatu da, eta ez dago geratuko duenik

Azken aldiko susperraldiak jaitzieratik atera du

### > FUTBOLA J.D.

Amorebieta futbol taldeak espero zen mailatik behera hasi zuen denboraldia, baina lozortetik esnatu denean ez dago geratuko duenik. Joseba Etxeberriaren taldeak sei partidu daramatza galdu barik, eta sailkapeneko zulotik ez ezik jaitziera postuetatik irten da.

Orain arte aurpegi bi erakutsi ditu Zornotzako taldeak.

Bata hasierako jardunaldietako iluna, bederatzi partidutan bost puntu batzeko kapaz besterik izan ez zena. Bestea, ernatua, sei partidutan 12 puntu atera dituen, hiru partidu irabazita eta beste hainbeste berdinduta.

Domekan Barakaldoren zelaiak jokatu du. Amorebietak garaipena lortzen badu, Barakaldok adina puntu izango ditu sailkapenean.

## Glas Smurfit Kappa taldeko ziklista erdiak berriak dira

Guadalajaran, 1.600 metroko garaieran, kontzentratu dira euren arteko hartu-emanak sendotzeko



Glas-Smurfit Kappa taldeko txirrindulariak Guadalajarako egonaldian.

### > TXIRRINDULARITZA J.D.

Glas-Smurfit Kappa taldeak txirrindulari berri dezente izango ditu aurten: Cristina Soler, Paula Sellol, Carla Puig, Natalia Fenoll, Elisabet Llabrés eta Isabel Martin ziklistek estreinako denboraldia izango dute Iurretako taldean. Martin CAF taldetik dator. Beraz, hamar ziklistako taldean sei berriak dira.

Joan zen asteburuan, Guadalajaran kontzentratu ziren, 1.600 metroko garaieran, hartu-emanak sendotzeko eta 2018ra begirako egutegia prestatzeko. CAF taldeko Amaia Lartitegi eta Inge Olabarrieta txirrindulariek ere esperientzia hori bizitzeko aukera izan zuten.

R.P.S. 214/06

A. Urreta podólogo

**Podología Ainaara Urreta Jainaga**

OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404

katerin ardoak

inaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak  
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com



**Durungaldeko**

# Mintzodromoa

Parte hartzeko eman izena durungaldeko euskaltegietan azaroaren 27a baino lehen



**639 400 786**

[www.durungaldea.blogspot.com](http://www.durungaldea.blogspot.com)

[durungaldea@aek.eus](mailto:durungaldea@aek.eus)

Durungaldeko berbalagunak

Antzokiazaleak eta Udalak



Babesleak



# AGENDA

ANBOTOkO agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



**AZAROAREN 24an, 21:00etan,  
ZORNOTZA aretoan**

## Anotación nº7

Doos kolektiboaren dantza ikuskizuna da Anotación nº7. Dantza garaikidea bideo proiektioekin eta elkarrizketekin uztartzen dituzte. Mugez, borrokaz eta dena bertan behera utzi eta arineketa irretetako gogoaz egiten da berba bertan.

### Musika

#### :: DURANGO

AZAROAREN 24an

**22:00etan**, Mocker´s eta Porco Bravo taldeen kontzertua, Plateruenean.

AZAROAREN 25ean

**21:30etan**, Mikel Urdangarinen kontzertua, Plateruenean.

AZAROAREN 26an

**19:00etan**, kontzertu korala, Andra Mari elizan.

#### :: ZALDIBAR

AZAROAREN 26an

**13:00etan**, TRES41 taldearen kontzertua, Sorgin tabernan.

**17:30etan**, Trikitilari gazteen XXVI. txapelketa, Olazar frontoian.

#### :: OTXANDIO

AZAROAREN 25ean

**22:30etan**, Komando klitorix eta Ziakhus taldeen kontzertua, gaztetxean.

#### :: BERRIZ

AZAROAREN 30ean

**21:00etan**, Empty Files taldearen kontzertua, Kultur Etxean.

#### :: IURRETA

ABENDUAREN 1ean

**19:00etan**, Aritza Mosoren 'Bilbainadak, habanerak eta abesti herrikoiak' emanaldia, nagusien etxean.

### Erakusketa

#### :: ZORNOTZA

ABENDUAREN 20ra arte

**08:15-21:30 bitartean**, Txelu Angoitiaren 'Tanger' erakusketa, Zelaieta zentroko erakusgelan.

### Antzerkia

#### :: BERRIZ

AZAROAREN 25ean

**20:00etan**, 'Una habitación propia' antzezlan, Kultur Etxean.

#### :: DURANGO

AZAROAREN 26an

**17:30etan eta 18:45etan**, 'ploc, ploc...Plik!' antzezlan, San Agustin kulturgunean. 0-3 urte bitarteko umeentzat.

ABENDUAREN 2an

**20:00etan**, 'Este es el color de mis sueños' antzezlan, San Agustin kulturgunean.

#### :: ABADIÑO

AZAROAREN 26an

**18:00etan**, 'Euria' Markeliñe taldearen antzezlan, Errota kultur etxean. Antzerkiño jaialdia itxiko du obra honek.

#### :: ZALDIBAR

AZAROAREN 30ean

**18:00etan**, 'Eingo al deu?' Atara Zarata taldearen antzezlan, gaztetxean.

### Jardunaldiak

#### :: DURANGO

AZAROAREN 24an

**18:30etan**, 'Bideak gurutzatu: gure komunitatea osotzen duten migrazio arloko bizi istorioak', Bizenta Mogel biblioteka. Hizlaria: Jeanne Rolande Dagougn Minkett.

#### :: ELORRIO

AZAROAREN 24an

**17:00etan eta 17:30etan**, 'Sorgina txirulina' ipuin kontalaria, Iturrin. 3-5 eta 6-9 urte bitarteko umeentzat.

**19:30etan**, Uxue Fraileren hitzaldia: 'Mendi lasterketak, mendiko lasterketetan saltoa', Iturrin.

### Bertsoak

#### :: BERRIZ

ABENDUAREN 3an

**12:30etan**, 'Bertso trama', Andoni Egaña, Miren Amuriza, Igor Elortza eta Jone Uriarekin, Kultur Etxean.

### Dantza

#### :: ELORRIO

AZAROAREN 24an

**20:00etan**, 'Nagare'. Circle of Trust eta Logela Multimedia taldeen dantza ikuskizuna.

### Ikus-entzun

#### :: IURRETA

AZAROAREN 26an

**19:00etan**, 'Han eta hemen' dokumentala, berriz ikusgai. Ostean, solasaldia egongo da egileekin.

#### :: ELORRIO

AZAROAREN 26an


**17:00etan**, 'Lego ninjago' umeentzako zinea.

### Aurkezpena

#### :: DURANGO

ABENDUAREN 20ra arte

**19:00etan**, 'Herejeen alaba' liburuaren aurkezpena eta irakurketa musikatua, Kurutzasantu museoa. Ander Lipusek egingo ditu irakurketak, eta Maider Lopezek eta Ander Berrojalbizek biola eta arrabita joko dituzte, hurrenez hurren.



## ZINEMA

#### :: BERRIZ KULTUR ETXEA

**La batalla de los sexos**

. barikua 24: 18:00  
. domeka 26: 19:00

#### :: DURANGO ZUGAZA

**Asesinato en el Orient Express**

. barikua 24: 19:30-22:00  
. zapatua 25: 17:00-19:30-22:30  
. domeka 26: 16:30-19:00-21:30  
. astelehena 27: 18:30-21:00  
. martitzena 28: 20:00  
. eguaztena 29: 20:00

**La higuera de los bastardos**

. barikua 24: 19:30-22:00  
. zapatua 25: 19:30-22:30  
. domeka 26: 19:00-21:30  
. astelehena 27: 18:30-21:00  
. martitzena 28: 20:00  
. eguaztena 29: 20:00

**Paddington 2**

. barikua 24: 19:30-22:00  
. zapatua 25: 17:00-19:30-22:30  
. zapatua 25: 17:00 (euskaraz)  
. domeka 26: 16:30-19:00-21:30  
. domeka 26: 16:30 (euskaraz)  
. astelehena 27: 18:30-21:00  
. martitzena 28: 20:00  
. eguaztena 29: 20:00

#### :: ELORRIO ARRIOLA

**La gran enfermedad del amor**

. zapatua 25: 22:00  
. domeka 26: 20:00

#### :: ZORNOTZA ARETOA

**La higuera de los bastardos**

. zapatua 25: 19:30-22:00  
. domeka 26: 20:00  
. astelehena 27: 20:15

**Tu mejor amigo**

. zapatua 25: 17:00  
. domeka 26: 17:00

**Inseparables**

. martitzena 28: 20:15

## AZAROKO AGENDA



### GIZARTE-ONGIZATEA

Indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko eguna. "Pegatinak eta puntu moreak banatuko dira"  
**18:30** Adierazpen instituzionalaren irakurketa. Jarraian Durangaldeko Beldur Barik 2017 lanak ikusgai.

### BIBLIOTEKA

HELDUEN IPUIN KONTALARIA.

**19:00** Ana Apika "De seres, enseres y saberes"

24

### ADIERAZPENAK

Aurkezutako lanak ikusgai (Marrazkiak, esaldiak, bertsoak, esloganak, binetak, argazkiak eta komiki laburrak) - Gaia: Berdintasuna, Indarkeria eta sexismoa.

24  
30

### IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA

**18:30-20:00** Reading club "Sunset Park/Paul Auster"

**XXVI. ASTE KULTURALA Pertsona nagusien etxean**

**18:00** Hitzaldia "No somos lo que dicen: estereotipos" Hizlaria: Zuentzat.

28

**> ZORION AGURRAK**✉ zorionak@anboto.org  
eguztaren 14.00ak arteko epea

> Zorionak, **Yosu**, dagoeneko 33 urte. Merezi duzun eguna pasa dezazula. Besarkada bat etxekoan partez.



> Azaroaren 25ean 11 urte beteko dituzu. Zorionak, **June!** Danok maitte maitte zaitugu, mosu erraldoi bat denon partez.



> Mutil koskor honek 12 urte beteko ditu azaroaren 28an. Zorionak, **Martin**, etxeko guztion partez.



> Zorionak, **Elixabete**, etxeko guztien partez zure seigarren urtebetetzean. Gozatu eguna familia eta lagunekin. Besarkada eta musu handi bat.



> Zorionak, **Xabier**, zure 7.en urtebetetzean. Musu handi bat familia guztiaren partez, txapelundun.



> Zorionak, **Izaro**. Oso ondo ospatu zure urtebetetze eguna, printzesa. Mosu handi bat familia osoaren partez, batez ere Xareren partez.



> Azaroaren 20an **Rakel Placeresen** urtebetetzea izan zen. Zorionak Inhar, Eider eta Ibonen partez. Musu bat denon partez.



> Eguaztenean **Anerrek** bi urte bete zituen. Zorionak danon partez ta batez be Aimarren partez.



> Zorionak, **Laia!** Ondo ospatu zure 7. urteguna. Muxu handi bat etxekoan partez. Askok maitte zaitugu!



> Kaixo, **Ekhi!** Aiur zure anaia naiz! Zoriondu nahi zaitut eta eskertu zure urtegunagatik. Bi urte bakarrik eta onena zara!



> Umerriko ikasleek ANBOTO KOMUNIKABIDEAK elkarteko egoitza bisitatu zuten astelehenean.



Ermodo, 11 · DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
f Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.

**> BOTIKAK****BARIKUA, 24**  
09:00-09:00**Balenciaga**  
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ZAPATUA, 25**  
09:00-09:00**Mugica**  
Andra Maria 9 - Durango**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-13:30

**Navarro**  
Artekalea 6 - Durango**Etxebarria**  
Montevideo etorb. 2 - Durango**Balenciaga**  
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Bazan Diaz**  
Uribarri 5 - Durango**Sagastizabal**  
Askatasun etorb. 19 - Durango**Campillo**  
Montevideo etorb. 24 - Durango**Unamunzaga**  
Muruetatorre 2C - Durango**De Diego**  
Intxaurrondo 22. - Durango**Jaio-Olabarrieta**  
Errekakale 6 - Elorrio**Eguren, Isabel**  
Trañabarren 15 - Abadiño**Bartolome**  
Gabiola 2 - Berriz**Iruarizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza**Melero, Rosa Mari**  
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-14:00

**Irigoien**  
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño**DOMEKA, 26**  
09:00-09:00**Sagastizabal**  
Askatasun etorb. 19 - Durango**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ASTELEHENA, 27**  
09:00-09:00**Unamunzaga**  
Muruetatorre 2C - Durango**Iruarizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**MARTITZENA, 28**  
09:00-09:00**Bazan Diaz**  
Uribarri 5 - Durango**Iruarizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**EGUAZTENA, 29**  
09:00-09:00**Mugica**  
Andra Maria 9 - Durango**Iruarizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**EGUENA, 30**  
09:00-09:00**Irigoien**  
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta**Iruarizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**MIREN RODRIGUEZ****Izokina, arrain segurua?**

Zenbait herrialdetan bultzada handia eman diote izokina haztegietan ekoizteko jarduerari, adibidez Norvegia, Eskozian, Kanadan eta Txilen. Arrain espezie horrek, izan ere, arrakasta handia izan du 90eko hamarkadaz geroztik. Ia hamabost urteko ibilbidea egin du ekoizpen mota horrek, eta hainbat ikerketa eta esperientzia landu dira mundu osoan zehar; orain esan liteke guttiz estandarizatuta dagoela. 2006. urteko abenduaren 1az geroztik, Errege Dekretu berri batek arautzen du elikagai horren inguruko jardunbidea, eta behartu egiten du, adibidez, jatetxeetan zerbitzatu den arrain fresko guztia izoztera, anisakis izeneko parasitoak eragiten duen arriskua murrizteko. Izokin ketua, berriz, teknikoki gordinik jaten da Espainian. Hala ere, kutsatzeko arriskua oso txikia izaten da.

**Ez da zertan izoztu**

Jatetxeetan zerbitzatu den arrain guztia izoztera behartzen duen Errege Dekretu horrek ez du ezer esaten arrainari eman zaion tratamenduaren inguruan, eta bereizketarik ere ez du egin. Arraina gordinik edo gutxi egin denean, izoztu egin behar dela dio. Arrain ketu guztiak sartzen dira, beraz, sail horretan, izan izokinaren ordezkioak edo ez. Izokin haztegiatetik badator eta behar bezala prozesatuta badago, egia esan, ez da beharrezkoa izoztea, baina legeak hori egiteko agintzen die errestaurazioaren arloan ari direnei. Aldiz, kontsumitzaile batek arrain hori bera supermerkatu batean erosten badu, libreki jan ahalko du, inolako tratamendurik eman gabe. Jatetxe batean eskatzen badu, ordeza, gutxienez 24 orduz eduki behar da izozkailuan, -20 °C-ko tenperaturan.

## Anbotoren lagunak

AQUARIUMak emandako  
3 sarreratako 5 sari zozkatuko  
ditugu Anbotoren Lagunen artean.  
Zorte on!

AURREKO ASTEKO ZOKETAREN IRABAZLEA IURRETA KOPISTEGIAK emandako bulego material sorta

GOTZONE BILBAO MEZO

ZORIONAK!

anboto Komunikabideak @anboto @anbotokomunikabideak

Tel.: 946 816 558 · www.anboto.org · lagunak@anboto.org



Anbotoren lagun eginez irabaz ezazu Eroski Bidaiak ekarritako bidaiak



# Anbotoren lagunak

## Lekuan lekuko lagunak

Anboto Komunikabideak
 @anboto
 @anbotokomunikabideak  
[www.anboto.org](http://www.anboto.org) · [lagunak@anboto.org](mailto:lagunak@anboto.org) · 946 816 558

Izena

Abizenak

Helbidea

Herria  NAN zenbakia

E-posta  Telefonoa

Kontu korrontea